

hh

hik hasi

GAIA: HEZKUNTZA BERRIZTAPEN  
PROIEKTUAK • ELKARRIZKETA:  
MICHAEL APPLE • ESPERIENTZIA:  
LANBIDE HEZIKETA • EKARPENA:  
ESKORIATZAKO IRAKASLE ESKOLA •



NOBEDADEA

Aschero musika sistema

Euskal abestiak sistema berrian





gaia

## KARMELE ALZUETA SARIA

Hezkuntza Berriztapen Proiektueie ematen zaien saria da. Iaz Urretxuko Joxe Mari Iparagirre institutuak jaso zuen *Cotton Lantegia* proiektuagatik.



elkarrizketa

## MICHAEL APPLE

EEBBetako Wisconsin Unibertsitateko irakasle honek Paulo Freiren ideiak eta ekarpenak gogorazten dizkigu

5 editoriala

6 kronika

8 gaia

**KARMELE ALZUETA SARIA**  
hezkuntza berriztapen proiektuentzat  
Imanol Iraola irakaslea eta ikerlaria

14 elkarrizketa

**MICHAEL APPLE**

20 esperientzia

**Lanbide eskolen elkartrukeak**

Elgoibar BH Institutua eta Erromako Carlo Cattaneo

22 ekarpena

**Eskoriatzako Irakasle Eskola**

Maite Garcia

25 ekarpena

**hik hasi** Udako Topaketak

Hainbat ikastarori buruzko ingormazio gehiago

28 nobedadea

**Aschero musika sistema**

"Ostadarren hotsaz" liburuan

30 nobedadea

**Idafe: autoerrealizazio bidean**

Balioak lantzeko programa

35 berriak

39 teoriak

**David Hamilton**

Benjamin Zufiaurre

## XANGORIN

Argitaratzailea: Enrekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 37.14.08

Fax: 943/ 37.21.54. Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690 Koordinatzailea: Joxe Mari Auzmendi Erredakzio burua; Ainhoa Azpiroz Erredakzio batzordea: Itziar Barriola, Mikel Estorba, Arantxa Goiburu, Mari Kamen Irastorza, Kristina Mardaraz, Josi Oiarbide, Fito Rodriguez, Maite Saenz, Xabier Sarasua eta Arantxa Urbe. Aholkulariak: Imanol Agirre, Abel Ariznabarreta, Bego a Bilbao, Marian Bilbao, Xabier Isasi, Irene Lopez-Go i, Izaskun Madariaga, Kepa Perez Urraza, Lore Erriondo, Idoia Fernandez, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Juanjo Ota o eta Pruden Sulupe. Diseinua: TRAMGraf! ik maketazio, aurreinpresioa: Gaizka Ibaas. Inprimategia: ANTZA S.A.L. Azaleko irudia: Ostadarren hotsaz Liburuaren aurkezpena (hik hasi).

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Onetsia 2001/VI/11. Kopurua: 3.500 ale

hik hasiko artikuluek edonon eta edonoiz baliu zaituzke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorri haiekin.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

# editoriala ekaina

## Aschero sistema euskal curriculumerako ekarpena



Lan honekin bide berriak eraiki eta musika adierazpenaren didaktikarako formula alternatiboak planteatu nahi dira

Aurrerantzean euskal ikasleek, eta Heziketa Berezian ari diren ikasleek bereziki, musika ikasteko sistema berria erabili ahal izango dute. Aschero musika metodoa irakurketa-idazketa kode berri batekin egin dako ariketekin, eta abesti herrikoiekin osatutako metodoa da. Musika sistema honetan oinarritutako garapen teoriko eta praktikoa hau, Jose Ramon Vitoriak, Mondragon Unibertsitateko irakasleak eta Arrasate Musikaleko kideak, Aschero argentinarraren musika sistema egokitu eta moldatzen egin duen lan eskergaren eta zenbait urtetako hausnarketaren ondorioa da.

Bertan, euskal abestiak sistema horretara egokitzeaz gain, Ascherok asmatutako sistemaren metodologia sistematizatu eta sistemaren irakaspenera zehaztu du haurren eragin-

korragoa izan dadin.

Eta hor daude bere lanaren emaitzak. Down sindromea duten haur eta gazteak "Hara nun diran" gisako euskal tradizioko abesti ederrak jotzen ikusi ditugu, eta hunkitu egin gaitu.

Hezkuntza sistemaren parte garrantzitsua izanik ere, askotan eskaintzen dugun hezkuntza moldeaz urrun geratzen zaizkigunei musikaz gozatzeko eta artea sortzeko aukera zabaldu die. Bestalde, sistema honen hartzaile zuzenak diren haur eta gazte horien iritziak eta sentipenak oso kontuan izan ditu eta haien ekarpenez taxutu du sistema.

Hainbeste maitasunez eta sentiberatasunez eginiko lanak irakaspe-  
nik ere badu gu guztiontzat. Sarritan esaten da jada guztia deskubrituta dagoela, eta indar kontaezina agor-

tzen da ideia jenialen bila.

Anartean, euskal curriculum hitzetik hortzera darabilkigun honetan, zenbait jende galdetzen hasia da zer ote den hori eta nola arraio eta nork egin behar ote duen. Jose Ramon Vitoriaren gisako ekarpenak euskal curriculumaren eraikuntzan aurrerapausoak dira, eta gure aburuz hori da bidea; dauden beharrak antzeman, jada tresnak edo baliabideak baldin badaude gure behar eta kulturara egokitu eta ez badaude sortu.

Zorionak Jose Ramon urrats hori bi norabideetan eman dizulako: bi-  
tarteko eta proposamen premia berezia duen ikasle taldeari zuzendu diozulako eta euskal curriculumaren eraiketan urrats handia ematen lagundu diguzulako, bejondeizula!

# kronika

Diwan eskolek eta Frantziako Gobernuak hitzarmena sinatu dute. Horrekin Diwan eskolak sistema publikoan integrazteko urratsa eman da.

Bretainiako eskola horiek 1977an sortu ziren. Egun 2.500 ikasle baino gehiago biltzen dira Lehen Mailako 30 eskola, Bigarren Hezkuntzako lau eskola eta lizeo baten artean. Ikastetxe hauetan bretoiaren irakaskuntza intentsiboa da, Bretainiako eskola publiko eta pribatuaren ez bezala. Hauek elebidunak dira eta bi hizkuntzak neurri berean ikasten dira. Mugimendu britainiarrak behin baino gehiagotan salatu du azken urteotan bretoiaren irakaskuntzak bizi duen egoera zaila: eskola eta azpiegitura arazoak dituzte, irakasle falta eta estatutuen prekarietatea. Hezkuntza Ministerioarekin sinatutako hitzarmenaren ondotik, Diwan eskolak estatutu publiko batek arautuko ditu aurrerantz. Horrez gain, irakasle berrien heziketa, material pedagogikoaren finantzazioa eta irakasleen soldatak Hezkuntza Ministerioaren eskuetan geldituko dira.



## Euskararen inguruko aferak hor darrai Nafarroan

Hilabete mugitua izan da Nafarroan euskarazko irakaskuntzarentzat. Nafarroako Gobernuak hartzen ari den neurriak ikusita, eta prestatzen ari den dekretuak aurreikusita, irakasle zein gurasoak mobilizatu egin dira. Euskarazko irakaskuntza publikoan bi orduko lanuztea egin zuten irakasleek ELA, ELAS eta LAB sindikatuak deituta. 1.250 irakasletatik 1.100 inguruk egin zuten lanuztea. A eta G ereduak 400 bat irakasle ere bat egin zuten geldialdiarekin eta ikastoletako irakasleen %90ak ere bai.

Lanuztearekin bi gauza nabarmendu nahi izan zituzten. Bata, ezer ofiziala izan baino lehen kalera ateratzea erabat logikoa dela. Eta bestea, Gobernuak uda garaia aprobetxatuko duela irakaskuntzako dekretua edo dekretuak ateratzeko.

Horregatik, horren aurrean mobilizatzea ederki justifikatua dagoela aditzera eman zuten deialdia egin zuten sindikatuak. Era berean, hemendik au-

rrera erne jarraitzeko beharra azpimarratu zuten.

Langileez gain, guraso eta ikasleak ere kalera atera ziren. Sortzen-Ikasbatuz eta Euskal Adarrak egindako deialdiak erantzun zabala jaso zuten. Euskal irakaskuntza eta euskaraz ikasteko eskubidea aldarrikatu zituzten. Modu berean, unibertsitate publikoan euskarazko ikasketak eskaintzeko premia azpimarratu zuten.

Hauek ere Gobernuak prestatzen ari den dekretuak izan dezakeen eragina nabarmendu zuten, min handia egin diezaiokeelako D ereduko haurren garapenari. Izan ere, beste gauzen artean, ez zaio inolako bermerik ikusten.

Dekretua atera bitartean, hainbat neurri hartu eta aurrera eramaten ari da Gobernuak. Horien artean testugintzari dagokiona. Otsailean Nafarroako Gobernuak deialdi publikoa egin zuen gaztelaniarazko liburuak euskaratzeko diru laguntza eman ahal izateko. Garai hartan Elkarlanean eta Ereinek adierazi zuten ez zituztela euren materialak aldatuko. Hortaz, Anaya, Edebe, Santillana eta Vicens Vives argitaletxei banatuko zaie diru laguntza. Itzulpenak eta egokitzapenak Nafar Gobernuaren irizpideen arabera egingen dira.

Dena dela, ikusteke dago zenbaterainoko kontrola ezarriko duen Gobernuak ikastetxeetan erabiltzen diren testu liburuak zein diren jakiteko. Izan ere, ikasmateriala aukeratzeko katedra askatasuna dago tartean.

Logikaren oinarrizko arauak haurtzaroan jasotzen dira, ez, eta, edo, bada gutxienez bat, oro partikula logikoak erabiltzen ikasten dugunean

W. V. Quine



## Lanbide Heziketa aldatzeko ahalegina dator Madriletik

Pilar del Castillo Madrilgo Gobernuko Hezkuntza ministroak bilera egin zuen erkidegoetako Hezkuntza ordezkariekin Lanbide Heziketaren lege aurreproiektua aurkezteko. Inaxio Oliveri Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburua planteamenduaren aurka agertu zen, eta Nafarroako ordezkaria, aldiz, alde. Inaxio Oliveriren esanetan, "atzerakoa eta zentralista da lege aurreproiektua, eta Jaurlaritzak ez du martxan jarriko dagoen bezala".

Oliverik gogoratu zuen Eusko Jaurlaritzak Lanbide Heziketaren Plana martxan jarria duela sindikatuekin adostu ondoren, eta horrekin jarraituko dutela. "Lege aurreproiektuak plan ba-

kar bat ezarri nahi du erkidego guztiarentzat, bakoitzaren ahalmena kontuan hartu gabe".

Eta halaxe adierazi zuen Pilar del Castillo ere: "Funtsezkoa da Espainia osoan Lanbide Heziketa bakarra egotea. Nazionala izan behar du, Espainiako merkatu bakar eta irekiaren erreferente gisa".


Eusko Jaurlaritza orain martxan dagoen Lanbide Heziketarekin gustura dagoen bitartean, EAEko biztanleen gehiengoa ere kontent dago hezkuntzaren kalitatearekin. Eusko Jaurlaritzako Lehendakariak Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan egindako azterketa soziologikoaren arabera, %62k uste du eskaintzen den hezkuntzaren kalitatea ona dela, eta %12k oso ona. Iritzi txarra dutenak askoz gutxiago dira: %1k oso gaizki dagoela, eta %4k gaizki dagoela. Erdipurdika dagoela diotenak %16 dira.

Inkestaren bigarren atalean EAEko hezkuntza sistema Espainiakoarekin alderatzen da. Emaitzetan bi iritzi nabarmendu dira. Batetik, %39k erantzun du bien artean alderik ez dagoela. Bestetik, %31k esan du Araba, Bizkaia eta Gipuzkoakoa hobeto dagoela. Eta okerrago dagoela uste dutenak %3 izan dira. Dena dela, euskaldunen %41k uste dute bertakoa hobea dela, eta erdaldunen artean, ordea, %21k bakarrik uste du hori.

Udaleku Elkartearen lanak aurrera jarraitzen du, oztopoak gaindituz. Iazko azaroan 450.000 liberako (11,263 milioi pezeta) zorra zuen eta horri buelta ematea lortu du. Defizit hura zela-eta, elkartea ia desagertzearekin egon zen, baina gauzak aldarate hobean daude orain. Botere publikoekin egin dituzten bilera eta lanen ondorioz pauso bat aitzina eman dute. Izan ere, gutunak bidali dituzte Hegoaldeko 522 herriko etxeetara eta Iparraldeko 233tara. Hegoaldetik 160.000 libera (4 milioi pezeta) eskuratu dituzte, eta Iparraldetik deus ez. Hortik ondorioztatzen da Iparraldeko haurrek erabiltzen duten egituraren %80 Hegoaldeko diruz finantzatzen dela. Udalekuko kideak ez ziren ados gelditu Iparraldean jasotako erantzunarekin, eta zenbait herritako instituzioekin negoziatzen ari dira, hango haurrek Udalekuren proiektuetan parte hartzen baitute. Bestalde, Udalbiltzaren laguntza ere jaso zuen, baina hura ez zen zorra kitatzeko, 2001. urteko proiektuak ordaintzeko baizik. Udari begira jarrita, Udalekuk Internet ikastaldiak emanen ditu Arberatzeko, Baiona eta Hendaian. Brasilgo perkusioa, antzerkia eta itsas bela ikasteko aukera ere izanen da. Eta horrez gain, Goizuetan zenbait egunetarako egonaldi bat antolatu du euskara hutsean.

# Karmele Alzueta saria

hezkuntza berriztapen proiektuentzat





## 1999-2000 ikasturteko hezkuntza berriztapen proiektua

EAEko Hezkuntza Sailak urtero Karmele Alzueta saria ematen du. Unibertsitatez kanpoko ikastetxeetan garatutako Berriztapen Proiektuetarako saria da berau. Ikastetxeetan garatzen diren berriztapen eta proiektuei bultzada handiagoa eman nahian sortu zen saria. Aldi berean, ikastetxeetako antolaketa eta koordinazio kalitateareagotzeko egiten den ahalegina ere saritzen du. 1999-2000 ikasturteko saria Urretxuko Joxe Mari Iparragirre BHIak jaso zuen Cotton Lantegia proiektuagatik.

Maiatzean jaso zuten Urretxuko Joxe Mari Iparragirre BHIkoek Karmele Alzueta saria, 2.500.000 pezeta-koa (100.000 liberakoa). Aurkeztutako Berriztapen Proiektuen artean *Cotton Lantegia* izenekoa iruditu zitzaion saria jasotzeko egokiena Hautaketa Batzordeari. Batzordea hori bost kidek osatzen dute: Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariak, Batxilergoko ikuskari koordinatzaileak, lurralde bakoitzeko PAT bateko zuzendariak, Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzako ordezkari batek eta Pedagogia Berriztapen Zerbitzuko teknikari batek. Ikasturtean zehar garatu eta praktikan jarri diren proiektuak saritzen dira deialdi honetan, eta *Cotton Lantegia* iaz landu zuten Joxe Mari Iparragirre institutuan.

Ikasturte osoko proiektua izan zen eta 4. DBHko ikasleak izan ziren protagonista Imanol Iraola irakaslearen gidaritzapean. Irakaskuntzako berrikuntza proiektu honek berdintasunaren kontzeptua lantzen du zeharlerro gisa. Cotton izeneko lantegi batean kokatzen da eta emakumeen egoera, eskubideak eta generoen arteko berdintasuna lantzeko bide ematen du. Hori guztia antzerki baten bidez adierazten da.

Antzezlanean ohiko lantegi bateko bizipenak ikusten dira: nagusiak gaiztoak eta zakarrak dira, langileek makinak menpean egiten dute lan, la-

na katean egiten da, ordutegi oso zorrotza daukate, ez dago langileen hitzarmenik ez eskubiderik... Gaur egun ez dago horrelako lantegirik, aldatuta teknologikoak gertatu dira, itxuraz behintzat lan baldintzak hobetu egin dira, nagusiek agindu ordez lan taldeak dinamizatzen dituzte... Dena dela, antzezlan honetan lehenengo lantegi tradizionala agertzen da, betiko nagusi matxista duen lantegia. Horrekin, antzezpena hausnarketarako bidea irekitzen saiatzen da. Abiapuntua errealitate sozial tradizionala da, baina heziketa epe ertain eta luzerako inbertsioa denez, ikasleek emakumeak lan munduan jasaten duen diskriminazioaz kontzientzia hartu behar dute, eta horretarako balio du proiektu honek.

Lanaren asmo nagusia Cotton Lantegian zer gertatu zen adieraztea da, baina mezua gaurkoturik eta emakumeek lantegietan dituzten arazoak eta lan baldintzak azalduz. Ikasleen arazo horren aurrean duten jarrera aztertu eta modu artistikoz erantzuna adierazi nahi da. Giza eskubideak eta hezkidetzaren lantzeko aukera ematen du.

### Proiektuaren nondik-norakoa

Proiektua antzerkiaren bidez gauzatu zuten Iparragirre institutuko ikasleek iaz. Halaber, taula gainera igo





eta antzeztu ahal izateko, aurretik hainbat arlo jorratu eta ikasi zituzten ikasturtean zehar. Imanol Iraola irakasleak azaldu digun bezala, proiektua diziplinartekoa da, hots, arlo bat baino gehiago ukitzen ditu: hizkuntza, arte hezkuntza, bertsolaritza, heziketa berezia, historia, orientazioa...  
*“Ezaugarri horrek proiektua aberastu egiten du, hainbat elementu lantzen direlako: estetikoak, historikoak, psikopedagogikoak, etikoak, teknologikoak...”*

Lanaren lehenengo zatia lan mundua aztertzea izan zela dio proiektuaren koordinatzaileak. *“Industri Iraulzatik hasi eta XX. mendearen erdira arte aztertu genuen. Ikasleek azterketa historiko bat egin zuten lantegia, makina eta nagusien eta langileen arteko dialektika oinarritzat hartzen dituen sistema produktiboaren gainean. Beren inguruneke datu estatistikoak aztertu zituzten EUSTATen datuak eta egunkarietako artikulua erabiliz. Datuetan, adibidez, ikusi zuten lan munduan emakumeen prekaritatea handiagoa zela. Beraien bailaran, Urola bailaran, Lanbide Heziketa egindako mutilak ez zuden langabezia, eta adin eta ikasketak bereko nesken kasuan ez zen horrelakorik gertatzen. Datu horiek guztiak institutuko Orientazio departamentuan alderatzen zituzten. Era berean, departamentu horretako irakasleek neskak heziketa ziklo horiek ikasteko animatzen zituzten”*.

Lan horrekin emakumearen lan egoera zein zen ikusi zuten eta hainbat gai eztabaidatu zituzten: emakumea eta hilekoa, amatasuna, sexu jazarpenak, ustezko berdintasuna, goi karguetako gizonezko eta emakumezkoen kopurua, emakumeak eredu batzuetara duen egokitu beharra...

Hori guztia landu ondoren, ikasleek antzerkiaren gidoia egin zuten bi ideiatan oinarriturik: emakumearen egoera lan munduan eta martxoaren 8ko gertaera historikoa. Gidoia Euskarako eta Gaztelaniako klaseetan egin zuten. Horretarako, lehendabizi,



idazlan bat egin zuten eta istorioaren kopena zehaztu zitzaizkien; hots, martxoaren 8an EEBBetako lantegi batean nagusiak barruan bildu ziren emakumeak erre zituen eta hori zen abiapuntua. Horik aurrerakoa ikasle bakoitzak asmatu zuen. Horrela burutu zuten idazlana, eta ondoren gidoi bihurtu zuten.

Hizkuntza idatziaren ondoren, ahozko hizkuntza lantzen hasi ziren entseguak eginez, eta noski, gorputz espresioa ere landu zuten. *“Alderdi hori ere oso garrantzitsua da. Nerabeak beren gorputza ezagutzen ari diren adin honetan gorputz espresioak beren gatazka fisiko eta psikologikoak kanporatzen laguntzen diete eta oso aberatsa da”* dio Iraolak. Era berean, dekoratu guztia ere ikasleek atondu zuten Plastikako irakaslearen laguntzaz.

Heziketa Bereziko ikasleek mural bat eta antzerkiaren kartela egin zituzten. *“Oso garrantzitsua da beraiek ere zerbait aportatzea, taldean integratzea, baina eraginkortasunez”*.

Azkenik, dena prestatu ondoren, ikasleek antzezlana taularatu zuten, lehendabizi herrian bertan, Urretxun, eta gero Errenterian. *“Izan ere, Errenteriako Zabalbide institutuan egon nintzen ni iaz eta harremanak bagenituen. Horrela, han ere antzeztu genuen. Eta ez hori bakarrik, hango ikasleek prestatu zuten aretoa, eta iragartzeko txartela ere bai. Beraz, haiek ere proiektuan parte hartu zutela esan genezake”*.

### Proiektuaren helburuak

Berriztapen Pedagogikoko saria jaso duen proiektu honek helburu hauek ditu:

- Gaur egungo ikuspegitik une historiko honen balorazioa eta azterketa egitea; martxoaren 8an zer gertatu zen, zergatik, ondorio historikoak eta gaur egun egon diren aldaketak baloratzea modu kritikoan.

- Giza eskubideen aldarrikapena eskolan zabaltzea, emakumearen egoera historikoa lan munduan aztertzea eta adibide gisa erabiltzea.

- Ekintza praktikoko baten bidez hezkidetzaren balioak indartzea, an-

**“Ikasleek emakumeak lan munduan jasaten duen diskriminazioaz kontzientzia hartu behar dute, eta horretarako balio du proiektu honek”**

G

# GATA

## Karmele Alzueta saria

### berriztapen proiektuentzat



tzeria izanik balio hori indartzeko tresna.

- Arazo etiko eta sozialak modu artistikoan adieraztea.

- Giza proiektu batean teknologiararen erabilpena jorratzea.

- DBH 4. mailako neskak ziklo teknologikoetan matrikulatzeko animaztea.

- Dokumentazioaren irakurketa kritikoa egitea.

- Dokumentazioaren hainbat lengoaia ezagutzea eta erabiltzea: testu historikoak, datu estatistikoak eta dokumentazio espezializatua (zuzenbidea, administrazioko erakundeena, alderdi politikoena, sindikatuena, GKEena...).

- Teknologia Berrien erabilpena ezagutzea proiektuarekin lotuz: Interneteko dokumentazioa, ordenagailuz egindako diseinu grafikoa, bideoa, agertokiaren argiztapena eta soinua, pintura akrilikoak eta abar.

- Institutua bera ingurune sozialeira irekitzea proiektua erakutsiz eta iritzi berriekin proiektua bera aberastuz. Horretarako, kontuan hartuko di-

ra administrazioko erakundeak, Emakunde, udalak, sindikatua, GKEak, gurasoak, proiektuan zuzenean parte hartzen ez dute irakasleak...

### Balorazio positiboa

Proiektua bukatu ostean, iazko ikasturte amaieran balorazio positiboa egin zuten Joxe Mari Iparragirre institutuan. Ikasleak oso pozik gelditu ziren eta irakasleak ere bai. Era berean, ikastetxearentzat ere pozgarria izan zen Karmele Alzueta saria jasotzea.

Hiru alderdi nagusi baloratu zituztela azaldu digu Iraolak. *“Alde batetik, lan munduan eta lantegietan emakumearen egoeraz ikasleek zer zekiten eta proiektuaren ondoren zer dakiten. Bestetik, ikasleek zer ahalmen*



*loru dituzten sentimenduak adierazteko eta hori plastikaren bidez azaltzeko. Eta azkenik, emakumeen kasu zehatza aztertu ondoren, giza eskubideek duten garrantzia barneratzen duten ala ez”.*

Atera duten ondorio garrantzitsuena da ikasleek proiektua bere egin zutela, emakumearen lan munduko arazoak ulertu zituztela eta antzerkiaren laguntzaz hori salatu zutela. Gainera, beraien lana ez zen eskolara mugatua gelditu, antzezlanaren bitartez jendeari eskaini baitzioten, hots, gizarteratu egin zuten. *“Talde honetako ikasleek kontzeptuak eta edukiak barneratzea loru zuten, eta gai horren inguruan sensibilizatu egin ziren. Ikasle horietako bat lantegi batera joaten bada eta lankide batek emakume izateagatik soldata baxuagoa duela ikusten badu edo amatasunarekin arazoak dituela, ziur ez zaiola oharkabean pasako eskubide zapalketa hori”.*

Horrez gain, Iraolaren iritziz, ikasleak konturatu ziren gizarteak eskubideak ez dituela oparitzen, baizik eta

kontzientziatuta gaudenean lortzen direla eskubide horiek. *“Eskubideak defendatu eta eskatu egin behar dira. Badirudi gizarte ongizatean bizi garelako dena zerutik iritsiko zaiela pentsatzen dutela ikasleek, eta ez da hala. Bizitzan lana egin behar da zerbait lortzeko, eta eskubideekin ere gauza bera. Nire ustez, alderdi horretatik oso garrantzitsua da horrelako proiektu bat egitea, horretaz konturatzeko balio duelako”.*

Era berean, azpimarratzekoa da ikasleek talde lana egin zutela, eta horri eman zitzaiola garrantzia, eta ez ohi bezala azterketei. *“Emitza akademikoak alde batera utzi eta ikasleekin arlo pertsonala lantzea oso aberasgarria eta atsegina izan da”.*

## Garrantzitsuena da ikasleek proiektua bere egin zutela

Baina benetako ebaluaketa proiektua bukatu ondoren hasi zela dio Iraolak, eta orain jarraitu behar dela. *“Benetako ikerketa lana ondoren egin behar da, hots, hausnartu, beharrezkoak diren aldaketak egin, institutuan jarraitzen duten ikasleek hezikidetzari buruz duten jarrera behatu, proiektu hau edo antzekoak aurrera ateratzeko dauden zailtasunak ikusi, eskola bera horrelako egoeretara nola egokitu behar den aztertu...”*

### Irakasleek ere ikasi dute

Ikasleek hainbat gauza ikasi dituztela eta helburuak bete zirela komentatzen digu Iraolak, baina irakasleentzat ere baliagarria eta aberatsa izan zen. *“Irakasle talde bat egon ginen proiektuan inplikaturik, bakarrik ezin baita horrelakorik aurrera atera. Kasu honetan, gainera, irakasleon prestakuntza ikastaroetan hezikidetzako ikastaro bat antolatu genuen hainbat gai landu genituelarik: sexua, generoa, identitatea, ezkutuko curriculum, orientazioa eta abar”.*





# GATA

## Karmele Alzueta saria

### berriztapen proiektuentzat

# G

## Proiektua baino gehiago da, ikerketak da

*Cotton Lantegia* proiektua da, baina ikerketa baten barruan kokaturik dagoela esan genezake. Izan ere, haren koordinatzaile Imanol Iraola tesirako ikerketa egiten ari da eta horren barruan kokatu zuen proiektua.

Tesian espazioa eta didaktika uzartu ditu, betidanik bere gustuko izan diren bigaiak. Historia eta Geografia ikasketak egin ondoren, Arkitekturako Fakultatean egin zituen doktoradutza kursoak eta espazioa izan zen hautatutako gaia. Berak aitortzen duenez ia-ia obsesioa izan da espazioa ikertzea, eta espazio horren barruan Euskal Herrian hainbesteko eragina eduki duen lantegia ikertu du. Espazioaren ikerketa hori bere lanbidearekin lotu nahi izan du, hots, didaktikarekin. Horrela, bere eguneroko ekintza profesionala eta ikerketezko ilusio bilduz *“Gipuzkoako industria ondarea eta hezkuntzarako tailer proposamenak”* tesia prestatzen dihardu.

Jarduera horretan *Cotton Lantegia* proiektuaz baliatu da ikerketa egiteko. Lantegi mundua ikertu eta hori ikasleei erakutsi die. *“Proiektuak ikasleekin lehen aipatutako guztia lantzeko balio izan du, eta horrez gain, tesiaren ikuspuntutik espazio horretan zer sentimendu eta sentsazio sortzen diren jakiteko balio dit. Orduan, bi alderdi daude: bata ikasleari zer bait esplikatzea, eta bestea hor zer prozesu psikologiko dauden ikustea. Eta hori da nik tesirako aztertu nahi dudana”* esan digu Imanol Iraolak.

Bere jardunean irakasle eta ikertzaile lana uztartzen dituela esan daiteke, beraz. Haatik, uztarketa zaila dela dio, ikertzaile jarduera aurrera eramateko laguntza handirik ez baita jasotzen. *“Ikertzaile bezala umezurtz sentitzen naiz. Ikertzaile lana behar den bezala egiteko diru iturririk eta azpiegiturarik gabe nago, eta nire egoera berean irakasle ugari dago. Gainera, bitarteko irakasleen egoera are eta okerragoa da; urtetik urtera ikastetxez aldatzen baikara eta horrek azpiegitura arazoak sortzen bai-*

**“Ikertzaile bezala umezurtz sentitzen naiz. Ikertzaile lana behar den bezala egiteko diru iturririk eta azpiegiturarik gabe nago, eta nire egoera berean irakasle ugari dago”**

*tizkigu, besteak beste. Adibidez, Cotton Lantegia proiektuarekin Joxe Mari Iparragirre institutuak 2,5 milioi pezeta irabazi zituen. Ni, aldiz, aurtun Beasaingo Txindoki-Alkartasuna BHI nago eta nire etxean jarraitzen dut ikerketarekin”.*

Irakaskuntzan ikertzen ari direnek zailtasun handiak dituztela garbi dago. Unibertsitateko irakasleak horretan jardutea normala eta logikoa ikusten dugu, baina beste irakasleak ez. Badirudi ez dutela ikertzen, eta ez da horrela. Irakasle ugari dago bai Bigarren Hezkuntzan eta bai Lehen Hezkuntzan ikerketak eta berrikuntzak egiteko gogoz, eta ez dute behar adinako laguntzarik jasotzen.

Horrez gain, bada beste arazo bat ere: ikerketa horien ostean sortzen diren proiektuak ezkutuan gelditzen direla, ez direla zabaltzen eta gizarteratzen. Eta hori irakasleen artean dagoen ohitura faltagatik da. *“Hemen ohitura gutxi daukagu proiektuak zabaltzeko. Egiten dira eta azkenean birziklatzeko ontzietan bukatzen dute. Hori da katalanekin daukagun ezberdintasuna. Haiek proiektuak egin eta ebaluatu ondoren ezagutzera ematen dituzte, eta hori da guri falta zaiguna”* gaineratzen du Iraolak.

Saiakera hori egitearen aldekoa da Iraola, hots, proiektuak ondo baloratu eta gizarterari aurkeztearen aldekoa. *“Eskola gizarteraren barruan ulertu behar dugu eta gizarterak jakin egin behar du zer gauza egiten diren eskolan, zertarako... Ikasleak gero gizarteratu egiten dira eta gizarteratze prozesu hori nola egiten dugun azaldu behar diogu gizarterari”.*

# michael apple

EEBBtako Wisconsin  
Unibertsitateko irakaslea



Hezkuntza historia artifizial  
batean oinarritzen da, ez baititu  
aitortzen izan diren zapalkuntza  
historiak



Iazko irailean Evorako Unibertsitatean (Portugal) Paulo Freireri buruzko nazioarteko kongresua burutu zen. Hainbat hizlariren hitzaldiak entzuteko parada izan zen, guztiek Paulo Freireren pentsamendua izan zutelarik hizpide gutxi edo gehiago. Horietako bat Michael Apple izan zen. **EEBB**etako Wisconsin Unibertsitateko irakasle honek hezkuntza eta boterearen arteko harremana sakonki aztertut du eta mundu osoan ezaguna den *Education and Power* (1985) izenburuko lan ospetsuaren egilea dugu. Horrez gain, ezkutuko curriculumaren esanahiak ere aztertu eta teorizatu ditu. Gaur egun hezkuntzaren soziologia kritikoren buruetako bat dela azpimarratu behar dugu. Gaztelaniaz zein frantsesez bere hainbat lan aurki ditzakegu, besteak beste, *Ideologia eta curriculum* (1986), *Politika kulturala eta hezkuntza* (1996) eta *Eskola demokratikoak* (1997).

Kongresu honetan parte hartu zuten Amagoia Etxeberria, Saioa Mujika eta Alaitz Muro EHUko Gizarte Pedagogiako ikasleek, eta Michael Applekin solasaldi bat izateko aukera izan zuten. Hizketaldi horretako kontuak bildu dizkigute hemen.

### Nolako harremana zenuen Paulo Freirerekin?

Askotan egoten nintzen berarekin eta elkarrizketa ugari izaten genituen. Sao Pauloko Hezkuntza idazkaria izan zenean, eta beranduago ere bai, sarritan izan genuen elkarrizketatzeko aukera, bai publikoki eta bai pribatuan. Zuetariko askok bezala, orduak igarotzen genituen eztabaidan, ez ekimen teorikoei buruz soilik, baita ekimen praktikoei buruz ere, gero egunerokotasunean eta kultura eta pedagogia arloan esku-hartzeko, aldi berean, politika arloan eragina izan zezan. Zorritzarrez, pedagogo kritiko askori ahaztu egin zaio ekimen eta mobilizazio politiko zehatzen beharra dagoela. Beraientzat teoria mailan jardun behar da, eta ez dute ia apenas loturarik egiazko borrokarekin eta komunitate eta instituzioen lanarekin. Mundua eta errealitatea testu bilakatu dute eta ez dute inongo harremanik auzoetan bizi den jendearekin, jende zapalduarekin. Paulo oso kezkatuta zegoen horrekin.

### Paulo Freire zapalduen alde egin zuen lanagatik gogoratzen dugu batez ere. Zuk ere hala gogoratzen al duzu?

“Danier elkarrizketak”en garbi asko antzematen zitzaion Paulori nola ari zen borrokan ikusten zituen errealitateekin, ez klase zapalkuntzarekin soilik, baita beste zapalkuntza motekin ere, eta bereziki arraza eta genero zapalkuntzarekin.

Urteak igaro zituen klasearen ezaugarriak eta funtzionamendua aztertzen. Harrigarria zen zein konprometitua zegoen ikustea eta nola saiatzen zen generoen arteko hierarkiak era askotako baztertze formak hartzen zituela ulertzen.

Berak ondo asko ikusten zuen, adibidez, hezitzaileak zein gaizki ikusiak zeuden gizartean; batetik behartu itxura zutelako, baina batez ere, irakasle gehienak kasualitatez iristen zirelako irakasle izatera. Emakumeen kasuan, emakumezkoak gehiengo



diren lanbideetan errespetu gutxiago, autonomia gutxiago eta soldata txikiagoa izaten dutela ikusi zuen. Genero zapalkuntza klase zapalkuntza bezain garrantzitsua zela ohartu zen.

Halaber, Paulok zuen beste kezketariko bat arrazarena zen. Laster ohartu zen zapalkuntza ez zela klasearen inguruan soilik gauzatzen; zapalkuntza koloreduna ere bazela sumatu zuen.

### Azalduko al diguzu ideia hori, hots, Paulok arraza zapalketaz zuen iritzia edo ikuspegia?

Arraza zapalkuntza garbi ikusten zuen hainbat errealitate gogora ekarrita. Adibidez, Brasilen eta munduan zehar indigenek izan duten tratua; erailketaz beteriko historiak izan dira beti.

Berak eta nik zalantzan jarri genuen Brasilgo arrazen arteko demokraziaren mitoa, batik bat ikusiz afrobrasildarren artean arraza nortasunezko politika nagusitzen ari zela. Horren aurrean, Paulok zioen zapalduen pedagogiak ez lukeela zapalduentzat izan behar, zapaltzaileentzat baizik.

Haatik, arraza erdigunean jartzea ez da erraza, duen konplexutasuna kontuan hartu behar baita. Arraza ez da kategoria egonkorra. Zer esan nahi du? Nola erabiltzen da? Nork erabiltzen du? Zein da bere papera hezkuntzan eta giza politika orokorrean? Ez litzateke zuzena izango arrazaz gauza bat balitz bezala aritzea. Arraza ez da neur daitekeen objektua, arraza erai-

Klaseak  
berdintzeko  
xedearekin  
indarrean  
jarri diren  
erreformek  
gizartearen  
arraza  
zatiketa  
areagotu  
besterik ez  
dute  
egin

kuntza bat da. Tamalez, jendeak azaletik hitz egiten du arrazaz, bazterrean utziz hainbat botere historien errealtatea.

### Nola islatzen da arrazakeria hori eguneroko bizitzan gure gizartean?

Arlo askotan nabaritzen da. Adibidez, EEBBetan, arrazakeria instituzio guztietan agertzen da, harreman guztietan, pertsona guztiengan dago barneratua. Alde batetik gizartea antolatuta dagoen ererengatik, eta bestetik gure eguneroko pertzepzioengatik, munduan gabiltzan ererengatik. Nahi gabe ere arrazarekin egiten dugu topo: Los Angeleseko poliziak gazte beltza jipoitu zuenean eta hori zuzenean telebistan ikusi genuenean, etxebeztzen prezioak begiratu eta "etxe horretan bizi nahi dut eta ez hartan" pentsatzen dugunean, eguraldiari, bizilagunari edo haur bati begiratzeko diogunean, enplegu bulegoko ilaran gaudenean, erosketak egiten ditugunean... Gizarteratuak gauden une beretik behartuta gaude arraza kategoriak eta esanahiak erabiltzera.

### Orduan, arrazakeria ekidin ezina da?

Arrazak elkarren kontra erabiltzeko ezagutu egin behar dira, eta ez ezjakinarena egin. Arrazaren gorabeherak ezagutzuz eta munduan ibiltzeko

moduei jaramon eginez posible izan daiteke zapalkuntza eta menderatze harremanetan zer alda daitekeen jakitea, hots, kontziente izanez eta arrazari aurrez aurre helduz. Estatuei, gizarte zibilaren instituzioei eta geuri aurre egiteko gai izango gara gure gizarteak antolatzen dituen ezberdintasunaren eta injustiziaren aurkako borrokan saiatzen bagara.

Arrazakeria ez dago EEBBetan soilik, baita Australian, Portugalen, Espainian, Mozambiken, Angolan eta beste leku guztietan ere. Nik uste dut ez dela posible ez historia, ez egungo statusak, ez eta hezkuntza politika ulertzea neoliberalismoaren ondorioa nitzak analisiaren erdigunean ezarri gabe. Eta neoliberalismoaren dinamika hausteak guk arrazaren botereari egunero aurre egitea eskatzen digu.

### Arrazakeriari aurre egiteko, ordea, horren jakitun izan behar dugula aipatu duzu, kontziente izan behar dugula. Eta hala al gara?

Ez dut uste. Gainera oso posible da klase zapalkuntzaren aurka lan egiteko konpromisoa hartzea, eta aldi berean, arrazazko harreman zapaltzaileak erreproduzitzen aritzea.

Pedagogia kritikoaren inguruan dabilen asko arrazaren inguruko borrokan aritu daiteke, eta era berean, atzerakoia izan daiteke klase borro-



kan. Edota oso aurrerakoia izan daiteke klase harremanetan, eta emakumezkoak botererik ez balute bezala tratatu. Horregatik, nik botere harreman horiek denak batera aztertzen ditut beti.

### **Hori guztia nabaritzen al da hezkuntzan?**

Noski baietz. Nazio Batuetako eskoletan gertatzen dena horren adibide da. Ustez hezkuntza politika demokratikoak daude, baina Freire eta biok lanean aritu ginen jende hura kaltetzen duten politikak dira. Ingalaterran, adibidez, Test Nazionalen emaitzak jasotzen dituen txostenean zera azaltzen da: haur beltzen eta zurien emaitzen tartea urtean %10 handitzen dela, eta hori hezkuntza sistema berdintzeko martxan jartzen diren erreformen ondotik. Nire lagun batek dio klaseak berdintzeko xedearekin indarrean jarri diren erreformek gizartearen arraza zatiketa areagotu besterik ez dutela egin. Ideologia eta ekonomia krisi garaian, beti azpian egon den jendea gero eta egoera okerragoan dago.

Hau ez da istorio bat, egiazkoa da, eta horrek gure herrietan aurrera eramaten diren politikekiko eszeptiko izatera eramaten gaitu. Lehen eta Bigarren Hezkuntzako eskoletan emaitza eta lorpen hobeak eskuratzeko dagoen grinak erreforma horien helburua gezur galanta bihurtzen dute. Ustez neutralak diruditen bitarteko horiek ez dira hala. Ikusten ari garen curriculumaren murrizketa, aberatsentzat gehiago eta txiroentzat gutxiago banatzen duena, gero eta tarte handiagoa sortzen ari da klase, arraza eta generoen ikuspegitik.

### **Zer paper joka dezake hezkuntzak hori alda dadin?**

Paulo Freirek oso garbi ikusi zuen ezarritako hezkuntza sistemak ekimen politikorik gabe zapaltzaileei soili-soilik egiten diela zerbitzu. Izan ere, hezkuntza historia artifizioal batean oinarritzen da.

### **Zer esan nahi duzu historia artifizioala esaten duzunean?**

Bada, gizartearen eta hezkuntzaren kontatzen den historia ez dela benetakoa. EEB-Betako adibidearekin ongi ulertuko duzue. EEB-Betako historiaren narratiba berriak honela dio: "etorkinen nazio bat gara; EEB-Ben historian denok etorkinak izan gara. Hasierako bertako amerikar indigena Bering itsasartetik etorri zen ipar, erdi eta hego ameriketara. Beranduago jendea Europatik etorri zen, eta geroago Latino Ameriketatik, Brasildik, Mexikotik eta abar". Egia da, gu denok etorkin berdinak gara. Alabaina, horrelako historia guztiz arrazatutako historia da, ez baititu aitortzen izan diren zapalkuntza historiak. Etorrin asko kateekin loturik iritsi ziren, esklabuak ziren, mendeak eta mendeak igaro dituzte zanpatuak, erailaketa baztertuak izanez, eta beste asko hil arte jipoiuak eta kartzelatuak izan dira.

Beraz, badago desberdintasun bat historia artifizioal hau sortzerakoan. Denok berdinak gara, arrazaz berdinak gara, baina memoria historikoa suntsitzen da.

### **Zein hausnarketa egin beharko genuke historia horren aurrean?**

Zenbait galdera planteatu beharko genituzke: nola berrikus dezakegu hezkuntza? Zer narratiba nazional sortu dira Portugalen, EEB-Betan, Brasilen, Espainian...? Noren begietatik ikusarazten digute mundua? Nola ulertzen dugu guk hori? Gure lanetariko bat zera da: geure buruak birkokatzen ikastea, ez zapalduer lagundu ahal izateko soilik, baizik eta denok zapalduak garelako ulertu ahal izateko. Edozein modutan, guk geuk ere ez dugu urrutian gertatzen dena aztertu behar, geure etxean gertatzen dena ere aztertu behar dugu.



### **Nola ikusten dituzu zapalduak eta zapaltzaileak?**

Nik "zuritasunaren politika" kontzeptua erabiltzen dut zapaldu eta zapaltzaileei buruz hitz egiteko. Hau da, zapaltzaileak laguntza eman behar zaien "besteak" bezala ikusten dituzte zapalduak. Horrela ulertzen da Nazio Batuek Timorrera janaria bidaltzea, eta bien bitartean ez da ulertzen Timorren egoera hori ekonomia kapitalistak eta kolonialismoak sortu dutela, Nazio Batuek beraiek gaixotu dutela Timor.

Gauzak horrela, "zuritasuna" ri buruz hitz egitean zera esan nahi dut: gauzen erdigunean sentitzea, harroharro geure buruak beste gizakiak baino gorago eta indartsuago den lekuan jartzea. Gu gaude erdigunean eta besteak periferian. Freirek zera zioen: "Gehiengoaren hizkuntzak gauza bat ahazten du: zuriak gutxiengo dira munduan".

Tamalez, oraindik badago erdigunean egoteak kosturik ez duela uste duen jendea, hau da, gu zuzenak garelako eta "besteak" besteak direlako pentsatzen duena. Austriako, EEB-Betako eta Frantziako askorentzat zuriak dira galtzaileak, etorkinei, "besteei", gehiegi ematen ari garelako kulturalki, ekonomikoki eta politikoki.

Orain entzuten ari garen diskurtso neokontserbadore eta neoliberalen zuriak ez dute pribilegiarik, eta hori ez da egia, oraindik erdigune baitira eta zurien abantailak nabarmenak bai-



Nik uste  
dut ez  
dagoela gure  
ekonomia,  
politika eta  
hezkuntza  
sistemak  
ulertzerik  
arrazak duen  
indarra kon-  
tuan hartzen  
ez bada

tira gure gizartean. Gero eta gehiago sortzen ari dira nik "nortasun zuri atzerakoiak" deitzen ditudanak. Zuritasunaren politika kolonizazioak eraikitzen saiatu da, neoliberal edo neokontserbadore deitu izan direnak. Nik uste dut ez dagoela gure sistema ekonomikoen, politikoen eta hezkuntzakoaren historia ulertzerik arrazak duen indarra kontuan hartzen ez bada. Nola ulertu Freirek hainbeste maite zuen Brasilgo historia ez badugu esklabutza eta afro-brasilgar jendearen etengabeko esplotazioa nazioaren erdigunean jartzen? Nik gidatzen dudan autoa, lantegiak, eskolak, ospitalak, argia piztu eta itzaltzen dudan une bakoitza... hori guztia posible egiteko bizia eman zuten esplotatu guztiak eskerrak eman beharko genizkieke.

#### Zertan ikusten duzu "zuritasun" hori hezkuntzan?

Hainbat gauzatan: eskolako lorpenak altxatzeko mugimendua, ebaluazioaren historia, plan kurrikularren ereduaren historia, hezkuntza pribilegiatuaren historia, hezkuntza berezia beti izan da zatiketaren historia, helburu neoliberalak jartzeko esaten digute beti...Azken finean, hezkuntzaren historia ez da izan inoiz berdintasunezko historia.

#### Zer proposatzen duzu hezkuntza mota hori eraldatzeko?


Arreta handia jarri beharko litzateke ez klasearen inguruan auzaltzen diren mugimendu neoliberaleri dagokienean, baizik eta arrazaren ingurukoei dagokienean. Adi egon behar dugu merkatuen arrazazko eraginak zein diren aztertzeke. Zera galdetu behar dugu: gu hori bultzatzen ari al gara? Britania Handiko Alderdi Laboristak, EEBBetako Alderdi Demokratik edo Brasilgo Gobernuak esaten dutenean "hona hemen denontzako Curriculum Nazionala; beraz, denok berdina gara", guk zera galdetu beharko genioke geure buruari: nor dira "gu" horiek? Nor dira "besteak"? Nor dago linguistikoki barneratua baina hezkuntza politikaren praktikan kanporatua?

Guk eragileen, egileen edo beregileen papera har dezakegu eguneroko errealitatera gerturatuz mitoak dituzten kostuak antzematuko, zapalduen alde egiteko eta egiturei gizatasuna emateko. Freirek etengabe zioen guk geure buruak hezi beharko genituzkeela, eta ez mantso-mantso moldatzeko, baizik eta askapenerako.



# hik hasik

## Euskal hezitzaileen harpidetza behar du



**5.000 pezeta urtean**  
10 aldizkari eta prezio bereziak topaketetan eta argitaratzen ditugun gainontzeko materialetan

Zure parte-hartzea ezinbestekoa zaigu  
**harpide zaitez!**

**hik hasi**ren harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale eta atera daitezkeen ale bereziak etxean jasoaz

Izena.....1. Deitura.....  
2. Deitura .....Tel.:.....  
Helbidea .....Posta Kodea.....  
Herria.....Herrialdea.....  
Ikastetxea.....Herria.....  
IFZ .....

Aurrezki Kutxa edo Bankua

Entitatea

Sukurtsala

K.D.

Zenbakia

Sinadura

**HARPIDETZA SARIAK**  
(BEZ barne)

Hego Euskal Herria  
5.000 pezeta  
Ipar Euskal Herria  
200 libera

**hik hasi**

Euskal heziketarako aldizkaria

Errekalde hiribidea, 59  
Aguila eraikina 1. solairua  
20.018 DONOSTIA.

GIPUZKOA

Tel: 943/ 37 14 08

Faxa: 943/ 37 21 54

# Esperientzia

## Euskal Herriko Lanbide Eskolak nazioarteko eskolekin harremanetan



Momentu honetan Euskal Herriko 17 lanbide eskola inguru, gehienak Elgoibar BH Institutuan kurtsoan zehar aritu eta gero, ari dira nazioarteko proiektuak lan-tzen. Europako beste herrialdeetako eskolekin harremanetan daude eta urtean zehar elkartruke ugari e-giten dituzte; Euskal Herriko ikasleak eta irakasleak kanpora joaten dira eta kanpokoak hona etortzen dira.

Elkartruke horien helburu nagusiak bi dira. Ikasleen elkartrukeen kasuan, hemengo ikasleek lan praktikak kanpoko enpresetan egitea da, eta kanpoko ikasleek hemengo enpresetan. Eta irakasleen kasuan, informazioa elkartrukatzeko: aurrerakuntzak, kalitatearen sistemaren funtzionamendua, irakaskuntza sistema, eskaintza, enpresetako praktiken antolaketa...

Elgoibar BH institutuan orain dela 9 urte hasi ziren kanpoko eskolekin erlazionatzen, eta gaur egun dozena erdi proiektu inguru dauzkate martxan: Ingalaterran, Irlandan, Italian, Finlandian, Suedian eta Holandan. Jose Luis Fernandez Maure Elgoibar BH Institutuko nazioarteko proiektuen arduradunaren iritziz elkartruke hauek oso positiboak dira. *“Gainera, harremanak ditugun jendea gure antzekoa da, gure antzeko pentsamenduak eta ikuspuntuak ditu, eta horrek asko errazten du erlazioa.*

*Lankidetzara, mundura eta nazioarteko proiektuetara irekita gaude-nak gara”. Izan ere, tartean ongi ateratzen diren esperientziak ere izan dituzte, eta arrazoia hori izan da; ikuspuntu desberdina edukitzea. Hala kontatzen digu Fernandezek: *“Orain dela 5 urte Ingalaterrako hegoaldeko eskola batetik jaso genuen hara joateko gonbitea. Baina, hasieratik katastrofikoak izan zen: neskak minigonarekin, mutilak korbata eta trajearekin... eta bat-batean militarrek! Bai, militar gazteei ere klaseak ematen zizkieten. Gure eskolan militarismoaren eta sexu banaketaren balioak deusesten ari bagara, nola egingo dugu horrelako eskola batekin elkartrukea? Horregatik, eskola harekin ez genuen aurrera jarraitu”.**

Ikasle zein irakasleentzat aberasgarria dira horrelako esperientziak eta harreman horiek luzaroan mantentzeko asmoa dute.

### Erromako harremanaren nondik-norakoak

Erromako Instituto Professionale Carlo Cattaneo eta Elgoibarko BH Institutuaren arteko harremanak orain dela urtebete hasi ziren. Ikasturte honetan Italiako zazpi ikasle Elgoibar, Deba eta inguruetako enpresetan jardun dira lanean, eta hemengo zenbait ikasle Erromako enpresetan praktikak egitera joango dira. Bestetik, hemengo lau irakasle Erromara joan ziren, eta orain dela gutxi egon dira Euskal Herrian Carlo Cattaneo eskolako

Leandro Cantoni zuzendaria eta Rocco Farima Hezkuntza Bereziko koordinatzailea. Elgoibarko BH Institutua ezagutu dute eta Donostian antolatuta den Lanbide Heziketako Ikastetxe Integralen Nazioarteko Kongresuan parte hartu dute. Gauza egokiak eta Italiara eramateko modukoak ikusi dituztela aitortu digute.



### **Nolakoa da Erromako zuen lanbide eskola?**

**Leandro Cantoni.**- Momentu honetan 1.000 ikasle baino gehiago dituen lanbide eskola da. Hiru urtetan ikasle kopurua 400dik 1.000ra igo da. Haziz doan lanbide eskola bakarra da, eta horren arrazoia dauzkagun ikasketak proiektuak dira. Eskaintzen ditugu heziketa zikloak Elektronika, Elektrizitatea eta Autoen Mekanika dira.

Eskolak lau egoitza ditu, eta horietako batean etorkin asko daude. Horregatik, etorkinei zuzendutako didaktika berri bat erabiltzen dugu, eredu pilotua dena probintziako beste eskolentzat. Bestalde, behar bereziak dituzten 62 ikasle daude aurten.

### **Nola dago antolatuta Italiako irakaskuntza orokorra?**

**Rocco Farima.**- Orain dela 100 urte sortutako sistema mantentzen da eta ez da batere aldatu. 6-11 urte bitartean Lehen Hezkuntza dago, 11-14 urte bitartean Hezkuntza Ertaina eta 14-18 bitartean Bigarren Hezkuntza.

### **Zein da Lanbide Heziketaren egoera?**

**Leandro Cantoni.**- Lanbide Heziketaren kasuan erreforma aurreikusia zegoen 2001-2002 ikasturterako, baina gobernu berriak ezezkoa eman dio eta ez du ezarriko. Hemen egin den erreformaren antzekoa zen eta ilusioa natuta geunden. Pena da, hemengo emaitza onak ikusita, han gauza berdina egitera iritsi nahi genuelako.

### **Euskal Herriko Lanbide Heziketa ezagutu duzue. Zer eramango zenukete hemendik Italiara?**

**Rocco Farima.**- Oinarrizkoena, euskal Lanbide Heziketaren erreforma.

Horrez gain, harrিতa gelditu gara hemengo eskolen kalitatearekin. Eskola konplexua, gaurkotua, malgua aktiboa eta esperimintatzeko eta proiektatzeko gai dena aurkitu dugu. Eta kalitatearen gestioa Italian baino askoz hobeto daramate hemengo eskolek. Han merkatuaren eskakizunak betetzen ez dituen kalitatea dago eta kanpoko mundu produktiboarekin erlaziorik ez dago zentzu horretan.

**Leandro Cantoni.**- Bestalde, Italian irakaskuntzak, oro har, gizartearen duen balorazioa hemen duena baino askoz era baxuagoa da. Irakaskuntza oso gutxi baloratzen da. Ondorioz, profesional on batek nahiago du irakaskuntzan lan egitea baino beste arlo batean aritzea. Hemen ondo prestatutako profesionalak irakaskuntzan ikusteak harritu egiten gaitu. "Zergatik ez ote daude enpresaren batean lanean?" galdetzen diogu geure buruari. Arrazoia da hemen irakaskuntzaren birbalorizazioa egin dela, eta Italian ez.

**Rocco Farima.**- Beste gauza bat irakasleen motibazioa eta inplikazioa da. Elgoibar BH Institutuan ikusi dugun horii bai eramango genukeela Italiara! Hemengo irakasleak ez dira irakastearekin konformatzen, beraien prestakuntzaz ere arduratzen dira. Gure irakasleen mentalitatea oso akademikoa da, irakasteaz baino ez dira arduratzen, ikastea ez da arazo, beraien prestakuntzak ez du kezkarik sortzen., ez dira inplikatzeko, ez daude motibatuak. Mentalitate aldaketa hori ez da gertatu Italian oraindik eta arazo oso handia da.

### **Zer ekarriko zenukete Italiatik hona?**

**Leandro Cantoni.**- Hori zailago da, baina badago gauza bat: ikastetxeen autonomia. Euskal eskolei autonomia gehiago emango genieke. Gure kasuan, hezkuntza proiektuak, ikasketak proiektuak eta abar aurrera eramateko autonomia daukagu, nahiz eta beti marko orokor baten barruan kokatu beharra izan. Hemen askoz ere murriztuago dago.

**Rocco Farima.**- Aldatuko genukeen beste gauza bat zuzendaria da. Hemen zuzendaria aukeratu egiten da eta urte jakin batzuetarako, eta hori ez dela ona eta egokia uste dugu, eze-gonkorra delako. Garrantzitsua da zuzendaria profesionala izatea eta kudeaketa arloa ezagutzen duena.

### **Zer harreman duzue enprekin?**

**Leandro Cantoni.**- Lanbide eskolen eta beste eskolen egoera erabat desberdina da Italian. Beste eskolek ez dute inolako harremanik eta kontakturik enprekin eta lanbide eskolek bai, askoz ere aktiboagoa da produkzio munduarekiko harremanetan. Lanbide Heziketan oso garrantzitsua da enprekin kontaktua edukitzea behartuak gaudelako ikasketen zati bat akademikoa izatera eta beste bat praktikoa izatera, hots, sistema produktiboan lan egitera. Horretarako zuzenean enpresetan aritu behar dute ikasleek. Horregatik, oso garrantzitsua da sistema produktiboarekin harremanak edukitzea.

Guk, beste harremanez gain, Wolkswagen-ekin partnership bat daukagu, hots, Wolkswagen-en akademia bat. Nazioarteko proiektua da, Alemania ere badagoena, eta garrantzitsua da ikasleentzat.

# Ekarpena

## Eskoriatzako Irakasle Eskolaren 25 urteak: iraganari eta geroari begira

Maite Garcia

Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Irakasle Ikasketetako diplomaturako zuzendaria



25 urte pasa dira Eskoriatzako Eskolak bere ateak ireki zituenetik orduan hasiberria zen euskal eskolaren beharrei erantzuteko asmoz.

Urte hauetan zehar aldeketa ugari gertatu dira, bai unibertsitateaz kanpo arlo sozialean, kulturean eta ekonomikoan, eta baita unibertsitate barruan: Unibertsitate Eskola izatetik Mondragon Unibertsitateko Humanitateen eta Giza Zientzien Fakultatea izatera pasa da.

Irakasle Ikasketetako diplomaturako zuzendari Maite Garciak aldeketa horien berri ematen digu. Era berean, XXI. mendeari begira Mondragon Unibertsitateak hezkuntza jardueran dituen planak eta jomugak ere aipatzen dizkigu.

### Hastapenak gogoratu... .

1976. urtean Eskoriatzako Irakasle Eskola sortzen da ikastolek garai hartan zuten arazo larria (irakasle tituludun euskaldunak ez zegoen) konpondu guran, eta bere egin zituen euskal eskolak zerkartzan dinamismoa eta pedagogia berritzailea. Onespene ofiziala 1978. urtean jaso ondoren, 1979an irakasleen lehen promozioa irten zen: 39 irakasle diplomatura eskuan. Arrakasta handia izan zuen eskolak hasiera hartan: frankismoan ez bezala, irakasle lanbidea erakargarri bihurtu zen euskal gazteentzat.

1997. urtean Mondragon Unibertsitatearen Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultate bihurtzen da, Arrasateko Goi Eskola Politeknikoarekin eta Oinatiko Enpresa Zientzien Fakultarekin batera MONDRAGON UNIBERTSITEA osatzen duelarik.

Urte horretan Humanitateak-Enpresa karrera ematen hasten da.

2001. urtean zilarrezko ezteiak ospatzen dira, ospatzeko motiboak baitaude egindako bide luze eta trinkoari so eginez gero: hasierako formaziotik aparte, irakasleen formazio iraunkorrean egindako lana, testuliburugintza, ikus-entzunezko baliabide didaktikoen bilduma, administrazioko euskararen normalizazioko ikastaroak... hori guztia izan da baliagarria bidea egiteko.

### Eguneroko bizia eta ...

Gaur egun Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak (HUHEZI) 750 ikasle ditu eta 3 karrera unibertsita-

rio ditu martxan: Humanitateak-Enpresa eta Hizkuntzen Psikopedagogiaren lizentziak, eta Irakasle Ikasketen diplomatura (Haur Hezkuntza, Atzerriko Hizkuntza eta Hezkuntza Berezia dira eskaintzen diren berezitasunak). Horatik aparte, HUHEZI Graduondoko formazioan murgilduta dago (dagoeneko "Enpresa Proiektuen Zuzendaritza" izenekoaren 2. promozioa, eta laster etorriko direnak).

Fakultatearen hazkundearekin batera, kalitatezko hezkuntza emateko aukerak ere aurrera egin dute, eta gure jardueraren helburu nagusiak bihurtu dira, ikasleen formazio teknikoaz gain, ikasleen gaitasunen lanketa, praktiken bidez balio kooperatibo eta solidarioak indartzea (atzerrian praktikak egiteko aukera), eta gure ikasleen partizipazio eta inplikaziorako bideak gehitzea ("talde jarraitzaileak").

Ikasleen satisfazio inkestek oso erratuak ez gabiltzala esaten digute; aldi berean, gurekin 2. titulazio bat ikasten geratzen diren ikasle kopuruak eta, nola ez, lan mundura iriteterakoan ikasle-ohien lan-okupazioari buruzko adierazleek, aurrera jotzera animatzen gaituzte.

Baina ez dira lotan geratzeko garaiak. Garbi daukagu gizartea, mundua... aldatzen doan heinean, geuk, etorkizuneko hiritarren eta langileen hezitzaileok, lehenak izan behar gara etorkizuneko gizartearen beharrak aurreikusten, eta horren arabera gure formazio plana eta sistemak egokitzen.

## Etorkizuna prestatu

Orain arte bezala, gizarteak tekniki ondo jantzitako profesionalen beharrazango du XXI. mendean; baina ez hori soilik, jakintzari beste era bateko balioak eta gaitasunak erantsi beharko baitzaizkio.

Gaur egun, injineruak, irakasleak, ekonomialariak, abokatuak eta abar inoiz baino hobeto prestatuta ateratzen dira ikastetxeetatik. Hala ere, hezkuntza eredu horietan ezer gutxi egiten da talde lana, lidergoa, autoikaskuntza, komunikatzeko gaitasuna, elkartzasuna eta antzerako balioak garatzeko. Eta hori harrigarria da, gizarteak berak pertsonak aukeratzeko oso kontuan hartzen baititu horrelakoak.

Mondragon Unibertsitatean hutsune horretaz ohartu gara, eta egoerari konponbidea emateko **Mendeberri** izeneko proiektua abian jarri dugu.

**Mendeberri** proiektuaren helburua Mondragon Unibertsitateko hezkuntza proiektua erabat birplanteatzea eta berregokitzea da. Horretarako, unibertsitateko titulazioetako ezagutza tekniko zehatzez gain, hezkuntza proiektuan gaitasun profesionalarekin eta balioekin zerikusia duten alderdiak hartuko ditugu kontuan.

Hezkuntza proiektu honen arabera, eta Delors-en informea oinarri gisa



hartuta, etorkizuneko profesionalari gaitasun edo kompetentzia teknikoa (**ikasten jakitea**) eta metodologikoarekin batera (**egiten jakitea**), partaidetzarako (**egoten jakitea**) eta pertsonala (**izaten jakitea**) eskatuko zaizkio. Profesional horiek modu eraginkor batean lan egiteko, lau kompetentzia mota horiek egoki garatzen eta elkarlotzen jakin behar dute. Horrekin batera, ezin dugu ahaztu eraldaketa teknologiko eta linguistiko batean murgilduta dagoen munduan kokatuta gaudela, beraz, kompetentzia horietan ezinbestekoa da eleaniztasunerako hizkuntza kompetentziak eta informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien ekarpenak eta baliabideak txertatzea.

**Mendeberri** proiektuaren garapena

Proiektuak gauzatzeko 4 urteko epea du, 650 milioi pezetako aurrekontua eta proiektuan zuzenean, oraingoz, lanean ari diren 40 lagun partaidetza.

40 lagun horiek lantaldetan banatu dira, gaitasunak lantzen dituzten aditu edo ikerketa taldeetan, alegia. Mendeberri proiektuaren helburuarekin batera daitezkeen gaitasunak eta balioak aztertu ditugu, eta baita horiek bultzatzeko orduan hizkuntza aniztasunak eta komunikazio teknologia berriekin izan dezaketen funtzioa.

Orain esperientzia pilotuak prestatzen hasita gaude. Mondragon Unibertsitateko hiru fakultateetako titulazio bana aukeratu dugu, eta hezkuntza proiektu berregokitua lehenik horietan ezarriko da; beraz, talde pilotuak dira. Eskola Politeknikoan Ingeniaritza Tekniko Elektronikoa, Humanitate Fakultateko

1976. urtean  
sortu zen Esko-  
riatzako Irakasle  
Eskola ikastolek  
garai hartan zu-  
ten arazo larria  
konpondu guran,  
hots, irakasle ti-  
tuldun euskal-  
dunen gabezia



# Mendeberri proiektuaren hel- burua Mondragon Unibertsitateko hezkuntza proiektu- a erabat birplan- teatzea eta berre- gokitzea da. Ho- rretarako, uniber- sitateko titulazio- etako ezagutza tekniko zehatzez gain, hezkuntza proiektuan gaita- sun profesionala- rekin eta balioe- kin zerikusia du- ten alderdiak har- tuko ditugu kon- tuan



tatean Haur Hezkuntza, eta Enpresa Ikasketen Fakultatean Enpresen Administrazioa eta Gestioa aukeratu ditugu.

Dagoeneko talde pilotu bakoitzean gaur egungo egoera nolako den aztertu dugu, titulazio horietako bakoitzean beharko dituzten gaitasunen eta balioen identifikazioa, alegia. Egoera aztertzeko eta gaitasunak eta balioak identifikatzeko merkatuak, hau da, gizaratek zer eskatzen duen begiratu dugu: enpresetara, ikastetxetara, aditurengana... joanda, adibidez, sumatzen diren beharrei nola erantzuten ari zaien, unibertsitatek ateratzen direnak zer-nolako maila ematen ari diren eta abar galdetu zaie. Udazkenerako, berri, karre-  
ra bakoitzean behar diren eskakizunen definizioa egingo dugu, hau da, titulazio bakoitzeko Profil Profesionala burututa izango dugu. Horren ostean ikasketen planak aztertu, eta ikasketen planen helburuak eta metodologia zehazteko lana egingo dugu.

Mendeberri proiektuaren formazio eredua

Hezkuntza proiektu berri honetan, bereziki, besteak beste, azpimarratzeko ezaugarriak hauexek ditugu:

1.- Landu beharreko edukiak ezagutzak, esperimentazioa eta gaitasun eta balioak dira.

2.- Ikas baliabideen aldetik, "hitza-apunteak-liburuak-presentzialitatea" ohiko formula honekin apuratu nahi da, formazio birtualak, ekintza osagarrien balio didaktikoak, ikasleen lan autonomoak... indarra hartuko dutelarik.

3.- Irakasle-ikasle harremanean, protagonismoa konpartitua izango da (ohiko formulatan irakaslea ardatza da), irakaslea tutore kolaboratzaile gisa agertuz, eta ikaslearen ekimena bultzatuz.

4.- Hezkuntzaren azken helburua ikasle bakoitzaren garapen profesional eta gizatiarra ahalik eta handien lortzea da, egokituko zaion gizarte eta lan munduan behar dituen baliabideak eskuratzen dituelarik.

Mendeberri proiektuaren ezarpena

Planak oraingo eran joaten badira, hau da, aurrez prestatutako egutegiarekin bat, 2002ko udazkenean talde pilotuetan programa aplikatzen hasiko da. Gauzak horrela, 2005-2006ko ikasturtean (2005ko udako Irakasle Ikasketakoak) Mendeberriko planaren tituludunen lehen promozioa irtengo da. Gizarte, enpresa eta hezkuntza munduan ekarpen handiak egiteko pertsonak eta profesionalak izan daitezen da gure helburua!!



# hik hasi udako topaketak

Uztailaren 3, 4 eta 5ean burutuko dira **hik hasi** Udako Topaketa Pedagogikoak. 600 lagunetik gora bilduko gara Donostian ikasturte honi elkarrekin amaiera emateko. Aukeran dauden 20 ikastaroetan eta arratsaldeetako saioretan hainbat gai jorratuko dira, guztiak euskal irakaskuntzan garrantzian jardunarekin zerikusia dutenak. Azken aldaketen eta xehetasunen berri dakarkizuegu jarraian. Eta horrekin batera, uztailaren 2an egingo dugun aurkezpen ekitaldirako gonbidapena luzatzen dizuegu guztioi. Lan pixka bat eginez, ikasiz eta elkarrekin egoteko parada aprobetxatuz, gure topagunea berrindartuko dugu aurten ere.



## Aurkezpen ofiziala

Nahiz eta Topaketak uztailaren 3an hasi, **aurkezpen ofiziala** uztailaren 2an egingo da Gipuzkoako Foru Aldundian izango da.

Hasteko, Joxerra Garziak hitzaldi bat emango du.

Ondoren aurkezpen ofiziala egingo dute Eusko Jaurlaritzako, Gipuzkoako Foru Aldundiko, Donostiako Udaleko, Pedagogia Fakultateko Hezkuntzaren Teoria eta Historia Saileko eta **hik hasi**ko ordezkariak. Jarraian luntxa egingo da.

Aurkezpen honetara joateko gonbidapena luzatzen dizuegu guztioi hemendik.

## Zerbait aldaketa

Momentuz 572 pertsona matrikulatu dira eskaini ditugun ikastaroetan, eta oraindik ere eskaerak iristen ari zaizkigu. Nahiz eta matrikula epea bukatu egon, libre dauden ikastaroetan izena emateko aukera badago oraindik ere.

Beteta dauden ikastaroak hauek dira: Klik, Ipuin multimedia sortzen, Munduko dantzak, Eutonia, Euskaraz







# hik hasi udako topaketak



jolasten eta Eskola eta familia. Gainera, Klik eta Euskaraz jolasten ikastarotan bi talde egin behar izan ditugu jasodugun eskaerari erantzun ahal izateko.

Bestalde, Informatika proposamen kurrikular baten aplikazioa, Gatazken gobernatzea, ebazpena eta eraldaketa eskolan, eta Etorkinak eta kulturantzaren tratatara hezkuntzan ikastaroetan guk uste baino erantzun eskasagoa izan da, hirurak bertan behera gelditu direlarik. Nahiz eta etorkinen inguruko ikastaroan gu ahalegin handia egiteko prest egon eta ikastaroa aurrera ateratzeko erabakia hartu, parte hartu behar zuten Bruselako Foyer taldekoek ez etortzea erabaki dute. Eta hori izan da ikastaroak aurrera ez egiteko arrazoia.

Gatazkaren inguruko ikastaroari dagokionez, jende gutxi eman zuen izena. Osterantzean, gai horren ingu-

ruan prestatutako arratsaldeetako bisaiok erantzun ona izan dute. Hortaz, goizeko ikastaroa bertan behera gelditu arren, arratsaldeetako saioak mantendu egingo dira. Horrela, uztailaren 3an Ramon Alzate, Amaia Agirre eta Lucía Gorbeñak "Gatazken bidebatzea. Zenbait programen eta eskuhartzeko osagaien aurkezpena. Diziplinar kodea" izeneko saioa eskainiko dute. Uztailaren 4an, bestalde, Carme Boque i Torremorell katalanak "Gatazken tailerra... dagokien irtenbidea" saioa emango du.

**OHARRA: EAEko ikastetxe publikoetako eta ikastetxe kontzertatuetoako irakasleak matrikulako dirua berreskuratzeko aukera duzue Hezkuntza Sailak ikastaroak egiteko ematen duen diru laguntzaren bitartez. Horren deialdia EAEko aldiakari ofizialean argitaratuko da.**

## Non-zer

Guztira 20 ikastaro izango dira, eta lau egoitzatan banatuko dira. Dena dela, dokumentazioaren banaketa leku bakar batean egingo da: Pedagogia Fakultatean. Era berean, sarrera ekitaldia hor burutuko da. Beraz, hasieran denok Pedagogia Fakultatean elkartuko gara. Ondoren, bakoitzak bere ikastarori dagokion egoitzara zuzendu beharko du:

### Informatika Fakultatean: INFORMATIKA

- WEB orria lantzen
- Aldizkari elektronikoaren prestateta
- Klik (2 talde)
- Ipuin multimedial sortzen. Fabula proiektua.

### Irakasle Eskolan eta Ekintza ikastolan: ESPRESIOA

- Plis-plast(h)ik(h)asi... plastika eta dramatizazioa uztartuz
- Munduko dantzak eskolan
- Eutonia. Gorputza eta sentsazioak
- Euskaraz aritzeko kantak eta jolasak (2 talde)



# hik hasi udako topaketak

## Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean: TEORIA eta PRAKTIKA

- Kolhbergen ekarpena
- Musika Hezkuntza Berezian
- Heziketa fisikoko irakasleen txokoa
- Praktika psikomotrizaren adinkako analisia
- Hizkuntza idatzia eta ikasleen auzitasuna
- Literatura eta haurren mundua
- Literatur txokoa: Lizardi, Mirande eta Sarrionandia
- Idazkera "txarra"? Ez, eskerrik asko
- Niri ez zait matematika gustatzen
- Heriotza heziketan. Egungo tabua?
- Eskolak bakarrik ezin... Familiak bakarrik ezin...
- Nahigabe psikikoa bideratzeko interbentzio goiztiarra

## Arratsaldeetako saioak

Uztailaren 3 eta 4ko arratsaldeetan saio libreak egongo dira arratsaldeko 4:00etatik 6:30etara. Kokapenari dagokionez, honako hau izanen da:

### Informatika Fakultatean:

- Web diseinua: grafikoak eta animazioa (uztailaren 3an)
- Klik programan aplikatzeko jarduerak (uztailaren 3an eta 4an)
- Prestakuntza telematikoa (uztailaren 3an eta 4an)

### Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean:

- Heziketa heriotza eta doluaren aurrean (uztailaren 3an)
- Kirol estraeskolarra: jarraibide pedagogikoak (uztailaren 3an)

- Gatazken bideratzea. Zenbait programen eta esku-hartzeko osagaien aurkezpena. Diziplinar kodea (uztailaren 3an)

- Gaztazken tailerra... dagokien irtenbideekin (uztailaren 4an)

- Harreman pedagogikoan irakaslearen rola indartzeko: talde operatiiboak (uztailaren 4an)

- Hainbat material pedagogikoaren aurkezpenak

- Proposamen berrien aurkezpenak

## Azken eguneko bazkaria

Topaketak jai giroan amaitzeko, iaz bezala, **bazkari mundial** bat egingo dugu. Uztailaren 5ean izango da, 14:30ean Ondarreta Tennis Klubean. Tripa betetzeaz gain, ondoren dantza egiteko aukera emango digute musikariek. Txartelak Topaketetan jarriko dira salgai, eta animatu!

**Dokumentazioaren banaketa leku bakar batean egingo da: Pedagogia Fakultatean. Era berean, sarrrera ekitaldia hor burutuko da. Beraz, hasieran denok Pedagogia Fakultatean elkartuko gara. Ondoren, bakoitzak bere ikastaroari dagokion egoitzara zuzendu beharko du**



# Nobedadea

## Ostadarrenaren hotsaz iritsi zaizkigu abestien doinuak

Ostadarrenaren hotsaz liburu berriarekin **hik hasik** musikari eta irakaskuntzari ekarpen berri bat egin nahi izan dio. Liburu berri hau Aschero Musika Sistemaren oinarrituta dago, hau da, ohiko pentagrama, notak eta solfeoarekin zerikusirik ez duen beste musika sistema edo metodologia batean.

Liburuaren lehen zatian metodologia hori nolakoa den azaltzen da, eta bigarren zatian sistema horretan idatzitako 81 abesti biltzen dira; euskal abestiak eta oso ezagunak diren beste hainbat abesti. Euskal Herriko musika landu ahal izateko, euskal kantak sistema horretara egokitu ditu Jose Ramon Vitoria egileak. Guztira 124 orrialde ditu eta kolorez. Izan ere, hori da sistema honen ezaugarri nabarmena: koloretako biribilak. Pentagrama eta noten ordezkoloretako biribilak erabiltzen ditu; kolore ezberdinek altuera adierazten dute, biribil tamainak intentsitatea eta biribil kopuruak iraupena. Horrela, soinuaren ezaugarriak adierazten dira: iraupena, tinbrea, altuera eta intentsitatea.

Solfeoa baino errazagoa eta logikoagoa den sistema hau Sergio Aschero argentinarrak asmatu zuen orain


dela 30 urte. Hala ere, momentuz ez da asko ezagutzen, baina gero eta interes handiagoa pizten ari da jendearen artean. Zerbait sistema erromatarretik arabiarera pasatzea iraultza izugarria izango zen bere momentuan, eta musikan ere gauza bere gerta liteke sistema honekin.

Horretan lagungarri suertatuko da liburu hau, hots, sistemaren ezagupena eta zabalpena bultzatzeko. Izan ere, musika ikasteko eta musikaz gozatzeko beste aukera bat eskaintzen du

Aschero metodoak, eta liburu bitarteko egokia izan liteke horretan laguntzeko.

*Euskal Herriko esperientziak emaitza onak izan ditu*

Euskal Herrian ezagutzen den esperientzia bakarra Jose Ramon Vitoria liburu egilearena da. Arrasate Musika-leko eta Mondragon Unibertsitateko Haur Hezkuntzako eta Hezkuntza Bereziko Musika irakaslea da. Duela zazpi urte hasi zen sistema hau lantzen A-



Jose Ramon Vitoria eta Larraitz Etxebarria, Josu Jauregi eta Aintzane Kintana bere hiru ikasleak liburuaren aurkezpenan izan ziren.

rrasate Musikalen behar bereziak zizutzen hurrekin: Down sindromea, burmuin elbarritasuna, atzerapen mentala eta autismoa, besteak beste.

Urte hauetan musika sistema eta bere arauak egokitu, aztertu eta garatu ditu behar bereziak dituzten pertsonentzako. Izan ere, guztiekin metodologia bera erabiltzen badu ere, bakoitzaren beharretara egokitu behar izaten da. Downsindromea duen batekin eta autista batekin ezin da metodologia bera erabili, zailtasun ezberdinak dituztelako. Down sindromea dutenen artean ere desberdintasun nabariak daude, bai psikikoak eta bai fisikoak.

Ikasle horiei musika irakatsi die, musikaren kodea eta egitura erritmi-koa. Baina horrez gain, musika kode horrekin arreta, memoria, kontzentrazioa, asoziazioa eta disoziazioa landu dituzte. Eta nola ez, oreka, erreflexuak, arintasuna eta mugitzeko beste trebetasunak ere bai. Zentzumenen pertzepzioa lantzeko oso baliagarria da.

Askotan musika trebeziari ematen zaio garrantzia (azkar jotzea...) eta komunikatzeko ematen duen aukera hori galdu egiten dugu. Ikasle hauek, ordea, gauzak hitzez edo beste modu batera adierazteko zailtasunak dituzte, eta musikak gauza horiek adierazteko aukera luzatzen die. Modu horretan, musikak beste balio bat hartzen du ikasle hauentzat, komunikaziorako espresio bide alternatibo bihurtzen baita. Gainera, beraiek ohartzen dira horretaz, gai direla konturatzen dira, eta horrek izugarri balio du. Sistema honek, musika emaitzak lortzeaz gain, gizartearen integrazioa garatzeko eta suspertzeko balio dezake, gainera.

Dena dela, Aschero sistema ez da behar bereziak dituzten pertsonentzat bakarrik, edonorentzat baizik. Era berean, Jse Ramon Vitoriaren ikasleek orain arte pianoa jotzen ikasi badute ere, edozein instrumentu jo daiteke sistema hau erabiliz. Azken finean, komunikatzeko beste modu bat

da, solfeoa baino errazagoa, logikoa, praktikoagoa, eraginkorragoa eta eragozpen teoriko-formalak saihesten dituena.

**Hik hasi Udako Topaketetan izango da aurten ere**

Sistema hau ezagutzera emateko eta bere esperientziaren berri emateko hainbat ikastaro eskaini ditu Jose

Ramon Vitoriak, horien artean iaz **hik hasi** Udako Topaketa Pedagogikoe-tan. Ikastaroak erantzun oso ona izan zuen partaideen aldetik, eta jendea oso gustura gelditu zen. Ikastaroaren bukaeran Down sindromea bi ikasleek sistema honekin zer ikasi zuten erakutsi zuten, hots, pianoa jo zuten. Izan zuen arrakasta ikusirik, aurten ere ikastaro hori eskainiko dugu.



# Nobedadea



## Idafe: autoerrealizazio bidean

### Balioak lantzeko programa berria

Baloreei, balioei buruz asko hitz egin dhi da baina gutxi egin eta are gutxiago sistematikoki landu. Gainera, zergatik hitz egin balioei buruz, zuzenki edo zeharka bada ere, hezkuntzari buruz hitz egiterakoan balioei buruz hitz egiten bada? Hala ere, inoiz ez zen hitz egin Balioetan oinarrituriko hezkuntzaz gaur egun bezainbat.

Berrikuntza, une honetan, La Lagunako Tafor publicaciones etxeak argitaraturiko Aciego eta Herandez irakasleen IDAFE programa honetan dago. Izan ere, balioak garatzeko eta suspertzeko plangintza bat burutu baitaiteke, irakasle-tutoreari prestakuntza larriegirik eta ahalegin handiegirik eskatu gabe.

#### Zer da Idate programa?

Pentsamendu kritikoaren eta balioen garapenerako ikus-entzunezko programa da. Taldean edo bakarka lantzeko programa da.

Pertsona bezala hezten lagunduz ("barnetik ederragoa egitea") eta hiritargisa, guztiontzat mundu hobea eginez ("mundu gizatiarragoa eta bizigarriagoa eraikitzea"), nerabe eta gazteen gan balioak garatzeko sortua den programa interesgarri eta atsegina da Idate.

Taldean edo bakarka lantzeko diseinatua izan den programa interaktiboa eta ikus-entzunezkoa da. Gidaliburua, koaderno eta 6 bidez osatua,



16 saiotan garaturik, bertan autohobekuntza, lanaren bidez gozamen eta errealizazioa, elkar ulertzea, lankidetzeta, elkartasuna, lagun izatea eta maitasuna bezalako balioak eta, bereziki, droga-menpekotasunera daramaten ihesbideak saihestea eta arazoei aurre egiteak duten garrantzia lantzen dira.

#### Zertarako?

- Gazteei pertsona bezala hezten eta errealizatzen laguntzeko.
- Bizikidetasuna eta harremanak hobetzeko.
- Mundu bizigarriagoa eta besteenganako arduraren suspertzeko.
- Droga-menpekotasunak eta ihes egiteak sortzen dituen arazoak aurreikusteko.

#### Norentzat dago egokiturik material hau?

Gazteentzat orokorki eta bereziki: Bigarren Irakaskuntzako ikasleentzat, hau da, 12 urtetik 16ra bitarteko ikasleentzat.

Tutoretzatarako eta Kultur, giza jarduera edo gazte elkarteetako partaideentzat eta honelako gaiak landu nahi dituen guztiarentzat.

#### Zertaz da?

Bizitzan proiektuak eta ilusioak izatearen garrantziaz.

Gure proiektuak egunetik egunera nola egia bihurtzeaz.

Drogaren tranpa eta lilura saihestea. Ikastearen eta lanaren garrantziaz.

Errealitatetik eta arazoetatik ihes egitearen arriskuaz.

Lanean gozatzeaz.  
Benetako maitasunaz.  
Mundu bizigarriago bategatik elkarlana egitearen beharraz.  
Besteen beharraz.  
Benetako adiskidetasunaz.  
Sexualitate arduratsuaz.

### Zerk osatzen du material hau?

Maletin baten barnean datozen 16 saioz osaturiko 6 bideok, Ikaslearen edo Norberaren Koadernoak eta Gidaliburuak osatzen du. Eduki hauek, 6 unitate edo multzotan taldekaturik, gutxi gorabehera ordubeteko 16 saio-tan zehar agertzen dira.

Bestalde, programa honetan zehar, aurkezlea, irudi eta ideia iradokiz-tzaileak, erreportajeak, istorioak eta laburpenak ikusten dira.

### Programan zehar zer pro- posatzen da?

Saio guztietan zehar, adibideak ikustea, konpromisoak hartzea eta ebaluatzea, besteekin erlazionatzea, zenbait ariketa gezi bidez lotzea, gogoeta egitea, edukiez jabetzearen ebaluazioak burutzea, bakoitzaren burutapenak idaztea, emaitzen taula lantzea, lankideekin hitz egitea bezalako lanak proposatzen dira.

### Nola landu?

Erraz lantzen den programa da ongi egituraturik baitago. Eskatzen den gauza bakarra da parte hartzen dutenen benetako inplikazioa.

### Koadernoak

Norberaren koadernoak irakurriz hasten da saio bakoitza, bideoa mar-txan jartzeko "PLAY" botoia sakatzeko adierazten den arte.

### Bideoa

Bideoan sekuentzia batzuk gara-tzen dira, jarduera bat landu behar dela adierazten den arte.

### Gidaliburua

Irakasle-tutoreari lagungarri gerta-dakiokeen liburuxka da hau. Irakurri eta erraz uler daiteke programa honen nondik-norakoa.

### Noiz eta zergatik erabili Idafe programa?

Gizakiek, 12-13 urtetik aurrera gutxi gorabehera, bizitzaren bigarren hamarkadaren amaiera arte luzatzen den aldi psikosozilogikoa hasten dute. "Nerabezaroa" deitzen diogu, heldutasunaren eta haurtzaroaren arteko iragaite aldi honi.

Gehienbat familian oinarritzen den loturatik, bere antzeko taldeetan eta beste sexuko pertsonengan oinarritzen den loturara iragaitea bizi izan ohi du neskatoak edo mutikoak nerabezaroan. Nerabea bere adineko kulturaren (nerabe-kultura) partaide sentitzen hasten da, euren moda eta ohiturekin, euren bizitza estiloarekin, euren balioekin.

Beraz, jada haurtzarokoak ez diren kezka, larritasun eta galdera ugari sortzen zaizkie adin honetan.

Idafe programa nerabeek dituzten interesak eta kezkak modurik egokien bideratzen, euren gaitasunak sustertzen, gogoeta egitera bultzatzen eta galdera horiei erantzuna aurkitzen saiatzen laguntzeko pentsaturik dago, hain zuzen ere. Idate programa, egiten dutena ilusio handiagoz egiteko, mundu bizigarriagoa, zuzenagoa eta solidarioagoa eraikitzeke prest egoteko, azken batean, euren buruarekin ziurtasun gehiago izateko laguntza da.

### Idafe programa zertan datza?

- Adiskidetasuna, maitasuna eta sexualitatea lantzen ditu.

- Proiektuei eta lortu nahi genituzkeen gauzei buruz dihardu eta be-rauek egia bihurtzeko egunez egun lana nola egin jorratzen ditu.

- Lanak eta ikasketek duten garrantziak eta gure asmoak burutuz nola go-

za dezakegun ikusten laguntzen du.

- Beste gizakien beharraz eta mundu bizigarriagoa eta gizatiarragoa eraikitzeke lana elkarkidetzan egitearen beharra aztertzen ditu.

- Edonolako drogezikiko loturak, alkohol-ohiturek eta gehiegizko hedonismoaren eraginak herrestaka ez eramateko agertu behar den adimena eta indarra aztertzen ditu.

### Nor dira egileak?

Pedro Hernández Hernández, La Lagunako Unibertsitatean Hezkuntzaren Psikologiako Katedraduna da. Euskal Herrian hainbat urtetan psikoterapeuta eta psikologo kliniko gisa aritua. Norberaren laguntzaren eta aberastasunaren programetan oinarriturik dauden Molde Kognitiboen teoriaren sortzailea eta ikertzailea da. Eskolatik abiatuz pertsona gizartean egokitzeko eta errealizatzeko edukiak lantzeko estrategia eraginkorren garapenean eta identifikazioan zentratutako ikerketak-lerro handi baten zuzendaria eta egile ere bada. Bere argitalpenen artean, liburu eta artikuluko mordo batez gain, "PIELE" eta "PIE-CAP" balioen garapen eta hazkuntza pertsonalerako heziketa programak eta "TAMAI", pertsonalitate testa nabarmentzen dira.

Ramón Aciego de Mendoza Lugo, La Lagunako Unibertsitatean Hezkuntzaren Psikologiako Irakasle Titularra da. Pedro Hernándezekin batera, hainbat artikuluren eta "Diseñar y Enseñar" bezalako zenbait kapituluren eta "PIE-CAP" programaren egilea. Bere lanak, batez ere, nerabeen proiektu eta interesen azterketan, programa sozioafektibo hezitzaileen ebaluaketan eta tratamendu hauen ondorio bereizleen azterketan oinarriturik daude.

### Nola eta non lor daiteke material hau?

Ohiko liburudendetan edota TA-FOR argitaltetxean (tel: 943 320528 edo i.etxeberria@euskalnet.net).

# Nobedadea



## Kili-Kili aldizkaria eraberritu da

Haur eta gaztetxoei zuzendutako Kili-Kili aldizkari eraberritua kalean da. 1966an sortu zuen Jose Antonio Retolazak aldizkaria. Urte hauetan guztietan bera eta beste hainbat lagun argitalpen honetan lanean jardun dira, eta orain Bizkaiko Ikastolen Elkartek hartu du lekukoa.

Esku-aldatze horren aitzakian aldizkaria eraberritu egin dute. Hala ere, orain arteko ezaugarriak mantenduko ditu, hau da, 9-15 urte bitarteko gazte euskaldunei zuzenduta egongo da bereziki. Hilean ale bat argitaratuko da eta tarteka gehigarriak ere bai. Momentu honetan 10.000 ale kaleratuko dira, 5.000 euskara batuan eta beste 5.000 bizkaieraz. Harpidedunek etxean jasoko dute, eta gainontzekoek kioskoetan izango dute salgai 200 pezetatan.

Orain ia 5.000 harpidedun ditu Kili-Kilik eta Bizkaiko Ikastolen Elkartearen helburua kopuru hori handitzea da. Horretarako, ikastetxeetan eta zenbait elkarte eta taldetan banatu eta zabalduko da aldizkaria.

Edukiei dagokinez, denetik izango da Kili-Kiliren 16 orrialdeetan: erreportaia, elkarrizketa, entretengarriak, ipuinak, gogoetak,

kirola, asmakizunak, esaera zaharrak, denborapasak, bertsoak eta abar. Lan horietako asko gazteek eginak izango dira. Hori da, haiz zuzen ere, BIEko arduradunek bultzatu nahi dutena: gazteen eskuhartzea. Hori gauza dadin Euskal Herrian zehar 30 talde baino gehia-

go eratuko dira eta aldizkariaren edukiak osatzeaz arduratuko dira.

Gazteen parte-hartzea ez da horretara mugatuko. Hainbat lehiaketa eta sari ere izango dira, eta baita ekintza osagarriak ere. Urtean behin Kili-Kili eguna ospatuko da Aste Santuen bueltan.



Udako  
ikastaldi,  
ikastaro,  
topagune eta  
abarren  
aukera  
freskoa iritsi  
zaigu

Udan gure prestakuntza

aberasteko aukerarik ez

dugula ezin esan

dezakegu



# Berriak

# ekaina



Garapenerako Gobernuz Kanpoko Koordinadora **Bake etekina-bakean inbertitu** kanpaina ari da aurrera eramaten. Kanpaina honen helburua da gizartea sentsibilizatzea armamentuaren aurka, gerrateen aurka, gastu militarrean inbertitukoaren aurka eta bakearen alde.

Gudak bultzatzen dituzten inbertsio horiek herrialde etnia eta kulturen arteko ulermena, garapena eta bakea eragiten dituzten inbertsioengatik ordezkatzeko da kanpainaren xedea. Horrek oso bestelako eragina edukiko luke gizakiaren garapenean.

Horregatik, horren guztiaren berri emateko hainbat erakusketa, hitzalde eta ekintza burutzen ari dira Euskal Herrian.

## Bake etekina-bakean inbertitu

Gastu militarreko inbertsioak gizarte gastuetara bideratzearen alde al zaude?



Funtsean, kanpainarekin lortu nahi dena da **eztabaidarako eta ekintzarako gune bateratu bat**. **Bake etekina** bultzatu nahi da. Eta zer esan nahi du horrek? Gastu militarrek gutxitzea eta ondorioz, aurrezturiko baliabideak gizarte eta garapen gastuetara bideratzea. Baliabide horietan aurreztutakoari deritzo bake etekina.

1994an Garapenerako Nazio Batuen Programak (GNBP) lehenengo aldiz jakitera eman zuen munduko gastu militarrek behera egin zutela (1987tik urteko %3), eta horrek bake etekin teoriko bat sorrarazi zuela. Aurreztutako baliabide haiek, ordea, ez ziren inoiz gizartearen eta gizakien garapenerako edota ingurumena zaintzeko erabili, ezta herrien artean adiskidetasun eta lankidetzaren harremanak bultzatzeko eta gatazkei irtenbide baketsua bilatzeko ere.

Hala ere, orduetik hona "Bake etekina" izenez ezagutzen den proposamenak sekula baino indar eta gaurkotasun handiago du, orduetik gastu militarrek etengabe gora egin baitute munduko herrialde guztietan.

Etekinaren ideien oinarriak nekez gezurta daitezke eta sen onetik hurbil daude: neurrigabeko dirutza xahutzen da izugarritzko makina militarren eta arma arinen mantenimenduan, mi-

lioika lagun-hauetatik 300.000 haurrak oraindik soldadu dabilta, gure gobernuak armen salerosketari buruzko datuak isildu eta itxuraz aldatzen dituzte eta armekin tratuan dabilta. Honela, Hegoaldeko herrialdeen zorpetzea eragiten dute. Ikerketa militarretara osasun, hezkuntza, nekarazaritza... arloetara baino askoz baliabide gehiago bideratzen da.

Errealitate horren aurrean, gutxienez bi galdera luzatzen ditu GGKEk:

1.- Zergatik ez inbertitu dena edo, ekonomiki botere horren zati bat bederen, munduko biztanle guztien oinarritzko beharrei erantzuteko?

2.- Zergatik ez onartu behingoz zentzuzkoagoa eta eraginkorragoa dela bidegabekeria larri eta hauek sortzen dituzten gatazken zergatiak prebentzioaren bidez konpontzea eta behin horiek sortutakoan kontrolatzen saiatzea, eta ez horietatik probetxua ateratzea?

Bake etekinaz hitz egitea, azken batean, **garapenaz eta askatasunaz** hitz egitea da. **Bakearen kultura bultzatzea** herrialdeek etorkizun hobea izateko ziurtasuna eskatzea da, **gerran inbertitzeari utziz** eta **hiritarren ongizateaz arduratuz**.

## Jakituko moduko datuak

Horrelako gaien inguruan askotan datuak ezkutatu egiten dira, ez dugu horien berririk izaten. Kanpaina honek, ordea, horrenguztiaren berri ematen digu hainbat datu ikusaraziz.

Munduan gastu militarrek ordaintzeko egiten den inbertsioa, munduko biztanle guztien beharrei erantzuteko oinarritzko osasun eta elikadura arloetan egin beharko litzatekeena baino 60 aldiz handiagoa da. Urpekuntzi nuklear batek balio duenarekin munduko haur guztientzako txertaketa kanpaina bat ordaindu ahal izango litzateke.

Munduko Osasun Erakundearen aurrekontua 800 milioi dolarrekoa da. UNICEF, Garapenerako Nazio Batuen Programaren (GNBP) eta Munduko Elikadura Programaren aurrekontua, hirurera batera, 4.714 milioi dolarrekoa da. Eta 2003. urterako Espainian aurreikusitako gastu militarra 13.200 milioi dolar da.

Pertsonen aurkako mina bat deusezteza mina hori egitea baino 100-300 aldiz gehiago kostatzen da. Eta Angolan eta Kanbodian biztanleak baino mina gehiago daude. Gaur egun 300.000 haur soldadu dabilza borrokan gatazka armatuetan.


EAEn Eusko Legebiltzarrak armen esportazioei buruzko informazioa ezkutatu du, nahiz eta atxikipena eman armen merkataritza gardenaren aldeko kanpainari. Gutxienez bi proiektu miliar handitan parte hartu duten 100 enpresa daude EAEn, eta beste 100 enpresak gutxienez batean esku hartu dute.

EAEn militar gastuek etxebizitzetarako gastua konponduko lukete eta 5.443 milioi pezeta geratuko liriateke 2.646 etxebizitza birgaitzeko.

Hori guztia jakinik, GGKEak galdera bat luzatzen digu:

**Gastu militarren zati bat gizarte gastuetara bideratzearen alde egingo al zinateke?**

**Orduan... zuk bakean inbertitzen duzu.**



## UEUren 29. ikastaldia eskaintza oparoa egiten digu aurten ere

Aurten ere Biarritzen eta Iruñean burutuko dira UEUren ikastaroak. **"29 tan haritzak 25 kimu"** lelopean, UEU sortu zeneko 29. urteurrena ospatuko da aurten, eta aldi berean, Nafarroan 25 urtetan etenik gabe egindako lana ere bai.

Biarritzen uztailearen 2tik 6ra bitartean izanen dira ikastaroak, Lycée hotelier et de tourisme-en. Ikastaro hauek izango dira han:

### Artea eta komunikazioa:

- Musika

### Giza eta Gizarte Zientziak:

- Itzulpengintza eta Literatura

- Kazetaritza

- Psikologia

- Sexualitatea

- Soziologia eta Zientzia Politikoak

- Zuzenbidea

### Zientziak:

- Natur Zientziak

- Klimatologia eta Meteorologia

Iruñean, osterara, uztailearen 16tik 27ra bitartean burutuko dira ikastaroak, Larraona ikastetxean. Hauek dira aukerako ikastaroak:

### Artea eta komunikazioa:

- Antzerkigintza

- Musika

### Giza eta Gizarte Zientziak:

- Antropologia

- Ekonomia

- Filosofia

- Glotodidaktika

- Historia

- Hizkuntzalaritza

- Psikologia

- Sexualitatea

- Soziolinguistika

- Soziologia

- Zuzenbidea

### Zientziak:

- Fisika

- Informatika (Segurtasun informatikoa)

- Informatika (Multimedia)

- Kimika

- Natur Zientziak (Babesguneak: kontserbazioa eta kudeaketa)

- Natur Zientziak (Nekazaritza ja-sangarria eta hondakinen kudeaketa)

- Osasuna

### Bestelakoak:

- Sukaldaritza

- Euskal Kultura

- Yoga

Izena emateko epea ekainaren 15era arte da. Egun horretatik aurrera %15 garestiago izango da. Izena emateko tokiak eta informazio gehiagorako helbide eta telefonoak hauek dira:

- **Baionan**, UEU, 11, J. Laffite karrika, Baiona. Tel: 559 256 056

- **Bilbon**, UEU, Erribera kalea 14, 1. D. Tel: 946 790 546

- **Donostian**, Bagera, Pedro Egaña kalea 2, 1. esk. Tel: 943 467 181

- **Eibarren**, UEU, Otaola hiribidea 1. Tel: 943 821 426

### - Gasteizen:

1) Arriaga Campus Liburudenda, Apraiztarrak, 1 Unibertsitate pabilioia. Tel: 945 141 670

2) Arriaga Megadenda, San Prudencio 7. Tel: 945 144 501

### - Iruñean:

1) Karrikiri Elkartea, Xabier karrika 2 bis behe. Tel: 948 222 589

2) Auzolan Liburudenda, Tudela karrika 16. Tel: 934 153 867

Era berean, informazio osatua duzue UEUren web orrian:

[www.ueu.org](http://www.ueu.org)

## Lanbide Heziketako I. Nazioarteko Kongresuak esperientziak elkartrukatzeko aukera eman du



Lanbide Heziketako hainbat arlo izan dira aztergai Donostian burututako I. Nazioarteko Biltzarrean

*Lanbide Heziketako Ikastetxe Integralak Europako Batasunean* izeneko I. Nazioarteko Biltzarra burutu zen Donostian maiatzaren 23, 24 eta 25ean. 660 aditutik gora jardun ziren hango eta hemengo esperientzien berri ematen. Hiru egunetan zehar Lanbide Heziketako ikastetxe integralen antolaketa,

jarduera eta kudeaketarako ereduak aztertu eta ezagutzera eman ziren, eta baita esperientziak, proiektuak eta metodologiak ere.

Europako Batasuneko hamaika hizlari, EEBBtako, Kanadako eta Zelandia Berriko 47 profesional, Espainiako Lanbide Heziketako eta Lanerako Prestakuntzarako 20 arduradun eta 43 teknikari aritu ziren elkartruke horretan. Era berean, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako 66 ikastetxetako ordezkariak

hurbildu ziren atzerriko ordezkariaren ekarpenak jasotzera.

Lehenengo aldiz antolatu du Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak gisa honetako nazioarteko biltzarra, eta gustura agertu da emaitzarekin. Lanbide Heziketako ikastetxe integralen prestakuntza zabalerako "ezinbesteko" tresna direla adierazi du Inaxio Oliveri Hezkuntza Sailburuak, eta "esperientzia aberasgarriak trukatzeko" aukera ematen dutela aditzera eman du.



**EHUren XX. Uda Ikastaroak eta III. Europar Ikastaroak** Donostiako Miramar Jauregian burutuko dira urtero legez. Ikastaroak, mintegiak, jardunaldiak eta tailerrak izango dira aukeran gaztelaniaz, euskaraz eta ingelesez. 18 gai edo arlo jorratuko dira, eta horien artean hezkuntza eta kalitatea hezkuntzan daude.

## EHUren XX. Uda Ikastaroak eskuera ditugu

**Hezkuntza atalean** bi ikastaro izango dira: "Sociedad y educación: las ciencias sociales en el siglo XXI" eta "Educación en valores: disciplina y libertad". Lehenengoa ekainaren 28 eta 30 bitartean egingo da, eta bigarrena abuztuaren 29 eta 31 bitartean.

**Kalitatea Hezkuntzan atalean**, aldiz, ikastaro bat eta bi mintegi prestatu dira. Ikastaroa "Hezkuntza erakundeek ikasteko duten gaitasuna" da, eta irailaren 6 eta 8 bitartean izanen da. Mintegiak "Calidad y mejora continua en los centros escolares" eta "Estrategias de mejora del rendimiento

académico. Aseguramiento del proceso formativo" dira. Lehenengoa uztailaren 5 eta 7 bitartean burutuko da, eta bigarrena irailaren 10 eta 11n.

**Izena emateko eta informazio gehiagorako:**

Ikastaroen idazkaritza

Miramar Jauregia

20007 Donostia

Tel: 943 21 95 11


Faxa: 943 21 95 98

1042 Posta Kutxatila

E-mail: [cursosverano@sc.ehu.es](mailto:cursosverano@sc.ehu.es)

[www.sc.ehu.es/cursosverano](http://www.sc.ehu.es/cursosverano)

# Argitalpenak



## Printze zoriontsua eta beste ipuin batzuk

Oscar Wilde  
*Klasikoen kutxa*  
Elkarlanean

Oscar Wilderen bost ipuin klasiko biltzen dira liburu honetan. Deneretan bere handitasuna puri-purian agertzeaz gain, bere idazkera dotorea, bere ironia jostalaria, bere umore fina eta, batez ere, bere sentiberatasun paregabearekin egiten dugu topo •



## 2001 ikasmaterialeen katalogoa

Erein


Katalogoko honetan Erein argitaletxeak eskolaren eremuaren barruan argitaratu dituen lanak ezagutzera ematen dira. Katalogoan biltzen diren testuak Euskal Herriko irakasleek eginak dira. Ikasgelarako materiala ugaria da: bai ikasleentzat, taldean edo bakarka lantzeko, bai irakasleentzat -gida didaktikoak, ebaluaziorako materiala, material osagarria eta abar dituelako •



## Ibiltzen

26. zenbakia  
2001eko udaberria


Betiko diseinu berritzailearekin, oraingoan ere hainbat gai ukitzen ditu BIGEek argitaratzen duen aldizkari honek. Besteak beste EHIGeren sorrera hitz egiten du. Gotzon Lobera Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara Sustatzeko Zerbitzuko zuzendariari egindako elkarrizketa ere jasotzen da. Eskolaren txokoa atalean guraso eskolei zuzendutako gai bat lantzen da: telebista heziketa tresna bezala •



## Tartalo

Mari Sainza  
Elkarlanean

Mari saila euskal ipuin herrikoien bilduma da. Ipuin hauek ahozko tradizioan oinarritutakoak dira, Joxe Migel Barandiaranek *El mundo en la mente popular vasca* liburuan jasotakoak. Bilduma hau haurrei zuzendurik dagoenez, testuaren egokitze lan bat beharrezkoa da, eta lan hori Joxan Ormazabalek burutu du. Marrazki bizi horien egilea, bestalde, Jesus Lucas izan da •



## Garapen fonologikoa haur euskaldunengan

Roberto Soto eta Bittor Zuñiga  
El Cid argitaletxea

Lan hau euskararen garapen fonologikoari buruzko arauzko datuak edukitzeko beharrazatik sortzen da. Izan ere, sistema fonologikoaren zabalakuntza eta osaketa ematen den 21/2 - 61/2 urte bitarteko "garai eskolarrari" buruzko datuak eskasak izan dira orain artean. Horretarako, zortzi subjektuaren mintzairaren azterketa longitudinal-transbertsala burutu da eta ondorioak bildu dira •



## Euskalkia eta Hezkuntza

Zenbaiten artean  
Mendebalde Kultur Elkartea

Elkarte honen zeregina Mendebaldeko euskara, hots, bizkaiera lantzea eta bultzatzea da, eta era berean euskara batuari egin diezaiokeen ekarpena bultzatzea. Egiteko horretan, aurtun V. Jardunaldiak burutu ditu eta han aurkeztu ziren txostengileen ikerketak eta teorizazioak daude liburu honetan. Umetatik unibertsitaterainoko euskalkiaren garapen erakusten da •

## Etorquinei erantzuteko prestatu behar dugu

Sarean Elkarteak X. Topaketetako ondorioak atera ditu

Sarean Elkartearen X. Topaketek antolatzaileen aurreikuspenak gainditu zituzten partaidetza aldetik. Gasteizen burutu ziren maiatzaren 17tik 19ra bitartean.

X. Topaketa hauetan hausnartu eta eztabaidetzeko proposatuta den gai nagusia zera izan da: "Eskolaren ikuspuntutik etorkinei eman beharreko arreta". Gaiaren lanketaren ondoren hainbat ondorio jaso dira:

- Etorकिनен fenomenoа EAEn ere gero eta handiago eta nabarmenagoa da, eta erantzunak ez du eskolatik soilik etorri behar, gizarte osotik baizik. Guztion zeregina da esparru hori bazterkeria arazo ez bilakatzea. Beraz, udaletxeek, Aldundiek, GKE eta Hezkuntza Sailak berak, beste batzuren artean, badute zereginik gertakari honen ondorioak leuntzen.

- Eskolari dagokionez, argi dago diru publikoz hornitzen diren ikastetxe guztiek erantzukizun nabarmena dutela pertsona multzo horri arreta eskaintzeko garaian. Bakar batzuk soilik erantzungo balute, etorkinak gizarte normalizatu batean txertatzea izugarri zailduko luketen "ghettoak" lortuko genituzke.

- Ikastetxeen prestaketa, harrera planen ezarpena, irakasleen formazioa eta beste lekutan garatu diren esperientzien ezagutza izan dira Sarean Topaketetan arlorik azpimarratuenak.

- EAEk izandako eskarmentuan oinarriturik, parte-hartzaileek zera iritzi zioten: nahiz eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan hizkuntza gaitasunerako berariazko ikastetxeek emaitza onak lortu, etorkinak ikastetxe arruntetan txertatzeko lehen urrats gisa, Haur eta Lehen Hezkuntzan ikasle hauek hasieratik ohiko ikastetxean kokatzea egokiagoa dela, Lehen Hezkuntzako 3. ziklokoekin zalantzak

baldin bazeuden ere.

- Edonola ere, erronka honi erantzuteko lanen finantzazioa erabat beharrezkoa da, bai langileei, aholkularitzari edo arloari egokitutako materialen sorkuntzan.

Gai nagusia hori izan bada ere, beste arlo bati ere tarte berezia eskaini zaio: "eskola kirola".

Sarritan zuzendaritza lanetan dabiltzanek, beste gai batzuek eskatzen dieten arretarengatik, ez diete behar adinako denbora eskaintzen arlo horri. Gai honen inguruko eztabaidaren ondoren, argi gelditu da eskolaren zeregin hezitzailean garrantzia duela. Adostasuna agertu dute eskola kirola ikuspegi hezitzailetik ulertu behar dela esaterakoan, eta beraz, Ikastetxearen Ikasketa Proiektuan txertatua egingo beharko lukeela. Bestetik, ikuspegi hezitzaile horretatik zera baloratu beharko litzateke nagusiki: ahalegina, hobekuntza eta ludikotasuna, huts egitea porrotarekin eta garaipena arrakastarekin inoiz ere lotu gabe. Era berean, ikusi da ikastetxearen eta kirol taldeen arteko harremanak es-tuago izan beharko lukeela, interes hurbilketa lortzearen. Nerabezaroan bereziki zaindu beharreko alderdia ere bada: inork ez diezaiola kirola egiteari utzi eliteko kirolaria izateko aukerarik ez duelako. Errendimenduan nahiz eskola kirolean teknika, taktika eta gaitasun fisikoa baino lehenago pertsonaren garapen osoa dagoela ez da ahaztu behar. Gurasoek ere beren seme-alabak ikustera joateaz gain, kirolean dituzten helburuak ondo ezagutu eta, garaipena soilik baloratu gabe, helburu horien guztien lorpena kontuan izan behar dute (kiroltasuna, talde lana, hobekuntza, arauen onarpena...).

## Euskaldunon GIDA Interneten dago jadanik

Artez Euskara Zerbitzuak kaleratutako **Euskaldunon Gida** jadanik Interneten dago ikusgai eta erabilgai, eta beraz, kontsultatzeko moduan.

Gida elektronikoa Interneteko bilatzaileetan iragarriko da: "Kaixo", "Aurki", "Google", "Yahoo" eta abar. Horrela, Interneten dabilen edonork "jatetxe", "abokatu", "altzari", "Bilbo", "Angelu" edo antzeko arlo edo herri izena bilatzaileetan idazten duenean, **Euskaldunon Gida Elektronikoa** ere agertuko zaio. Bilaketa aldetik, beraz, erraztasunak ematen ditu gida elektronikoak.

Bestalde, gida eguneratu egingo da eta horrek gero eta erabilgarriagoa bihurtuko du.

[www.euskaldunongida.net](http://www.euskaldunongida.net)

# David Hamilton

Munduan zehar ibili den eta ikasi eta irakatsi duen ikerlari hau ebaluazioaren inguruan egin zituen ekarpenak direla-eta egin zen ezaguna. Hezkuntzan egiten den ebaluatzeak onura asko dakartzala baieztatu du. Horretarako, ebaluazio horrek nolakoa izan behar duen zehaztu du.

Eguneroko hezkuntza jardunari dagokionez, teoria eta praktikaren arteko uztartekari garrantzia handia ematen dio.

1943an jaio zen Londonen eta 1965ean graduatu zen Edimburgoko Unibertsitatean. Matematika eta Zientzietako irakasle bezala prestatu zen eta hiru urtetan egin zuen lan Ingalaterrako Leicester Konderriko eskola adikor (ulerkor, comprensiva) batean.

Urte horietan “*eskolako kultura*”ren inguruko interesa piztu zitzaion eta Edimburgoko Unibertsitatean Hezkuntzako Master bat egiten hasi zen 1969an. Horrela, 1973an doktordutza tesia aurkeztu zuen: “*Eskolako testuinguruak: ikaskuntzaren bitartekoan ikerketa*”.


## Biografia profesionala

Profesional bezala Glasgow Unibertsitatean aritu zen 1972 eta 1974 urteen bitartean, eta berriro 1978 eta 1989 bitartean. 1974 eta 1976 bitartean Eskoziako Hezkuntza Ikerketa Zentroan jardun zen, 1976an Illinois Unibertsitatean (EEBB), 1990 eta 1997 bitartean Liverpool Unibertsitatean eta 1998az geroztik UMEA Unibertsitatean (Suedian) ari da lanean.

Irakasle bisitari bezala Europako, Ipar eta Hego Ameriketako, Asiako e-

## Benjamin Zufiaurre

NUPEko Psikologia eta Pedagogia Saileko zuzendaria



ta Australiako unibertsitate askorekin kolaboratu du. Batzorde askok eta aintzek gonbidatu izan dute eta bere ekarpenak mundu osoan zehar aurkeztu ditu. Zentzu horretan, nabarmentzekoa da Madison (EEBB), Edimburgo, Glasgow eta beste unibertsitateekin duen etengabeko lankidetzatza. Nafarroako Unibertsitate Publikoak ere hirutan gonbidatu du, 1989, 1992 eta 1994an, eta bertako Psikologia eta Pedagogia Departamentuak lankidetzatza jarraitua mantentzen du.

Mundu mailan duen hedapena frogatzen duten adibideak dira honako hauek: 2001eko otsaila eta martxoan Tbilisiko Unibertsitatean (Georgia) egon zen “Irakasleen Prestakuntzako eta eskoletako hezkuntza ikerketaren garapena” gaiaren inguruan lan egiten, eta ondoren Sao Pauloko Unibertsitatean (Brasil) egon zen eskola modernoari buruzko bere ikerketa historikoa sakontzeko.

## Heziketa ideiak

David Hamilton “*ebaluazioaren*” inguruan egin zituen ekarpenak zirela-eta hasi zen ezaguna izaten, “*ebaluazio argiztatzailea*”. 60ko hamarkadan argitaratutako bere lehen lanean islatzen dira “*ebaluazio argiztailearen*” klabeak eta oinarriak. Horiekin zera planteatzen du: ebaluazioaren ikuskera eta balioa prozesuaren zati bat bezala, ez amaieran, tartean baizik. Ebaluazio horrek gertatzen dena argitzeko, egiten denaren eta pasatzen denaren adibideak emateko... balio du, eta hortik, heziketa prozesuetan gertatzen denaren kontziente izanik, hobetu ahal izateko parada dago.

Praktikak *“ikuspegi argitzailetik”* gainbegiratzek prozesuak berbideratzeko eta eskolako funtzionamenduaren klabeak aldatzeko aukera emango digu. Nola jokatzaren dugun eta gure irakaskuntzako jokaerek zer eragin dituzten soilik kontuan izanez, eskolako hezkuntza hobetu dezakegu, edo gizarteko hezkuntza ere bai eskolatzearen berbideratze egoki batekin. Testuinguru honetan, David Hamilton eskola adikorrek irakasle bezala izan zuen esperientziatik abiatzen da. Horrek, gainera, bere lanak eta ondorengo garapena markatu ditu, eta gela ikerketa bat egin ahal izateko egoera bakoitzean egokiak suertatuko liratekeen epistemologia eta metodologia ikertzerakoan ere oinarri izan da bere lan esperientzia hori.

Ebaluazioaren ikuspegi honek bat egiten du hezkuntzako beste aukera kualitatiboekin, zeinak haren ikuspegi batetik abiatzen diren hobetzeko ikerketa bezala. Trukaketara, ebolutiora eta aberastera irekita dagoen gelaren premisak prozesuak ulertzea eta baloratzea izango dira. Aukera horien artean hauek nabarmenduko genituzke: Crombach-en ikuspegia (1983), Stacke eta bere ebaluazio erantzungarria, MacDonald eta bere ebaluazio demokratikoa, Eisner eta bere ebaluazio artistikoa eta J. Elliott-en autoebaluazioaren zentzua bera.

60ko hamarkadako lehen urteetan D. Hamiltonek bazekien eskolako funtzioak ezaugarri anitzak eta konplexuak zituela, eta baita irakasleentipologia anitza zela ere: irakasteko gaitasuna zutenak eta ez zutenak zeuden, interesa zutenak eta ez zutenak, jarrera patriarkalak, tradizionalistak eta errebisionistak zituztenak, gutxiago edo gehiago inplikatzaren zirenak eta berritzaileak. Eta hori guztia gelako konplexutasuna bezain konplexua den eskola munduan kontestualizatzen da. Konplexutasun hori hainbat gertaeraren ezaugarri eta ondorio da: sektoreen arteko liskarrak, interesen arteko borrokak, antolaketa interferentziak, kanpoko eragileen esku-sartzea, hezkuntzaren eta eskolatzearen

erabilera politikoak eta sozialak...

90eko hamarkadan, nahiz eta bere kezkek, interesak eta aurretiazko motibazioak alde batera ez utzi, hezkuntzako ikerketan garrantzitsua den nazioarteko mugimenduko partaide egin zen. Hezkuntzako ikerketa horrek hezkuntza aurrerapen sozial bezala kontsideratzen du, ariketa epistemologikoa baino lehenago. Eta horrek, Hamilton, beste asko bezala, hezkuntzaren ikerketaren nagusitasun psikostatistikotik eta kontrol esperimentaletik at dagoen eremura eramaten du.

Hamiltonentzat hezkuntza ikerketa, medikuntza ikerketa bezala, kode etikoez zuzentzen dute. Kode horiek izugarriko eragina dute ikerketarako legitimoa den hartan. 50eko hamarkadan hezkuntza ikerketaren kontrol mugimendua garrantzitsua izan bazen, 60ko hamarkadarako aldaketa esanguratsua gertatu zen iker-

## Nola jokatzaren dugun eta gure irakaskuntzako jokaerek zer eragin dituzten soilik kontuan izanez, eskolako hezkuntza hobetu dezakegu, edo gizarteko hezkuntza ere bai eskolatzearen berbideratze egoki batekin

ketaren esanahian. Presio etikoak dirrela eta, esperimentuak saiakera soil bezala ulertzen dira, kontrolaren baldintza mugatu menpe dauden esanahia dutelarik. Hortik haratago joaten ez direnez, ezin zaie beren balioa maximizatu.

Bere lanaren ardatz nagusietako bat *“hezkuntza eta gizartea”* gaiarekin lotuta egon da, eta hortik azpimarratu du *“Teoria eta praktika”* ren banaketa tradizionala. Zentzu horretan, bere ikerketa Aristotelesen pentsamendutik abiatzen da. Premisa horien baitan zera defendatzen du: *zientzia teoriko* baten asmoa ezagutza sortzea den heinean, *zientzia praktikoren* asmoa ezagutzaren sorkuntzatik haratago doala. Aberastearen eta hobetzearen ideian oinarritzen da, eta horrek prozesuei eta produktuei buruz pentsatzea dakar.

Heziketaren egitura produkzio prozesuen (nola irakasten da) inguruan eta produkzio horren asmoak eta helburuak definitzean (zergatik irakasten da) egituratzen da. Hortik abiatuta, hezkuntza zientzia praktikoa bezala ulertzeko modurik errazena hau da: gogoratzea irakaskuntza-ikasuntzaren arteko oinarriko erlazioa ez dela bi pertsonaren artean gauzatzaren, pertsona bakarraren baitan baizik. Eta norberaren heziketa pertsonalean Teoria eta Praktika bana ezinak dira.

Hamiltonentzat ezagutzak balio soziala du, eta hortaz, hezkuntza ezagutzaren komunikazioari eta bere banaketari lotuta egongo da. Horrela, balio sozial baten banaketa bereizgarria *“desberdintasunari”* estuki lotuta agertzen da. Bere lanak, beraz, inplikazio politiko eta sozial indartsuak aurkezten ditu. Ikuspegi horretatik, *hezkuntza aktibitate ideologiko* bat da, inoiz neutrala ez dena. Ezagutza *botere politiko, sozial eta kultural bezala beteta dago eta hezkuntzak barneratu edo kanporatu, ahuldu edo indartu, baloratu edo gutxietsi egiten du*, ezagutzaren eta kultur kapitalaren banaketari eta ezarpen desberdinari egiten baitio erreferentzia.

Ezagutza akademikoa praktikan sortutako ezagutzarekin erlazionatu behar da. Akademia ikertzailearen pertzepzioa ez da, eta ez du izan behar, bakarra, praktikan sortutako ezagutzarekin osatu behar da. Heziketa praktikaren analisia heziketa egiturak aztertzea baino haratago doa. Zeren praktikan sortzen den ezagutzak ikasleak eta irakasleak motibatzen edo desanimatzen dituzten mugen garrantzia ere barneratzen du, eta baita horiek gainditzeko ahalmena ere. Zentzu horretan, praktikak ulertzea eta interpretatzea heziketako aktoreak motibatzen dituzten egoeren logika ulertzea bezain garrantzitsua da, edo beren jarrerak zuzentzen dituzten mikro-politikak, beren nortasuna gidatzen duen kultura eta urra ditzakeen edo urratu ezin ditzakeen pautak ulertzea bezain garrantzitsua.

Testuinguru honetan garatuko du bere lana *hezkuntza zientzia bezala denbora eta espazio batean kokaturik* gaiaren inguruan. Testuinguruak esanahia ematen die hezkuntza praktikei, eta are gehiago, testuinguruak berak praktikak motibatuko ditu. Testuingurua irakasleen eta ikasleen pentsamenduaren barruan zein kanpoan kokatzen da. Beraien ekintzak eta erreakzioak, aho eta gorputz hizkuntza, testuinguru historiko baten lekuko dira.

Horregatik, hezkuntza ulertu ahal izateko garrantzitsua izango da bere aurrekariak ezagutzea eta etorkizuneko zentzu bat izatea orainaldiko baldintzen arabera. Hamiltonek Erdi Aroraino jotzen du bere analisisetan, XVI eta XVII. mendeetara eta Berpizkundera lotutako aurretiazko ideia eta praktiken garapenera. Garai hura Hezkuntzaren Historiako plataforma historikorik garrantzitsuena da, hots, garai hartan hasi ziren erabiltzen lexiko europarrean *klase*, *curriculum*, *metodo*, *didaktika* eta beste zenbait kontzeptu. Kasuistika horrek ez zuen eskola modernoa elikatu soilik egin, heziketa praktiken lehen globalizazioan ere eragina izan zuen. Garai hartan Europatik heziketa praktika asko

esportatu ziren mugimendu ekonomiko, kolonial eta erlijiosoetan oinarriturik. Bere ustez, hor sartzen dira lehenengo jesuiten mugimendutik hasi eta Soros Fundazioak berriki egindako lanetara arte burututakoak.

### Bere ikusmolde profesionalaren eragina

David Hamilton haratago doa zera dioenean: bere lana hezkuntza zientzia praktikoa izatearen ondorioa dela. Bere ustetan, hezkuntzako akademikoek gai izan behar dute agertzen dutena praktikan jartzeko. Horren arabera, praktikan egiten denaren antolaketak bat etorri behar du defendatzen den irakaskuntza kriterioarekin, zeren kontzientzia teorikoa heziketa praktikoa gainean eraiki behar

## Bere ustetan hezkuntza akademikoek gai izan behar dute agertzen dutena praktikan jartzeko. Horren arabera, praktikan egiten denaren antolaketak bat etorri behar du defendatzen den irakaskuntza kriterioarekin

baita. Aldi berean, ulermen mota bat islatu behar du uneoro barneratzen denaren, hori da garrantzitsua, eta barneratzen ez denaren artean. Modu horretara, nahiz eta berak kontsentsua ez defendatu, akademiko baten erantzunak bere ikasketekin bat etorri behar dute.

Irakastea ez da egiteko erraza, ez da irakurtzera edo testu bat errezitatuz murrizten, baizik eta "ikasgaiak" esan nahi duena ulertzea eskatzen du. Hezkuntzako irakasle baten heziketa praktikek bat etorri behar dute bere ulertzeko moduarekin edota irakaskuntza ulertzeko eta praktika horiekiko duen jarrerarekin.

Eskola bizitza zer den eta nola egituratu behar den hautematerakoan, Hamilton *"ez da sekula nekatzen eta beti ikertzeko leku berriak bilatzen ditu"*. Teoria eta Praktikaren artean egiten den edozein bereizketa baztertuz ulertu nahi du hezkuntza praktikaren dinamismoa. Zentzu horretan, ez dio zentzurik aurkituko eskolatzaren eredu teorikoak egiteari eta horiei balioa emateari eskolatzeari ez dela hezitzea defendatzen duen ustetik abiatuz gero. Uste horren arabera, eskola espazio eta denbora batean kontestualizatzen da hezkuntzaren *diaktika global-lokala jarraituz: "idea ezin da hitzera murriztu eta hitzak ez du praktika ordezkatzeko"*.

Eskolatzaren sorrera Erdi Aroan ikertzen hasten denean, edota XV. mendean inprenta hedatu baino lehenago, eskola modernoaren klabeak kontestualizatuz iristen da. Horrek, adibidez, Kanadako ikerlariekin edota Hegoafrikako eta Brasilgo hezitzaile post-kolonialistekin aldi berean elkarriketa bat izateko aukera emango dio. Egia da hezkuntzaren ideal lokalak adierazi ahal diren heinean, ideia eta hezkuntza praktikek denboran zehar izan duten eragina perfilatu ahal izango dela. Horrek bere baitan ekartzen du *"eskolatze modernoak"* historian eta hainbat lurraldetako klabe post-kolonialekin izan duen eragina kontestualizatzeke boterea.

Modu horretan, bere dimentsio



konparatiboa agerikoa da: “*heziketa praktiken zirkulazio globala*”, nahiz eta herrialde bakoitzean bere berezitasunak eta desberdintasunak izan. E-sanguratsua da “*Eskolatzearen Teoria baterantz*” (1981) eta “*Hezkuntzaren eraldaketa denboran zehar...*” (1990) liburuak hasieran izenburu bakar batean bildu nahi izatea: “*Hezkuntzarentzako eta eskolatzearentzako galdutako gida baterako klabeak*”.

Premisa horien pean, bere hezkuntza hautua, “praktika sozial” bezala ulertua, eredu teoriko-logikoan oinarritzen da, zeinak taylorismoaren, fordismoaren eta toyotismoaren eboluzioan kokatuko liratekeen bizitza sozialeko aldaketak barneratuko dituen. Hortik, heziketa kontzeptu klabeen eboluzioa aztertzea pasako da, nola hazi eta esportatu ziren mundu osora. Era berean, globala, lokala, eskolarra, lurraldekoa, estatala, europarra eta mundukoa dimentsio konparatiboak sakonduko ditu. Kultur kontzeptuak eta desberdintasunak ulertu ondoren, termino horien eboluzioaren inguruan dauden hizkuntz pertzepzioak eta kontzeptualizazioak ezagutuko ditu eta horien aurrean sentikorra bihurtuko da. Hortik aurrera, “*ikaskuntzaren gizarte kritikoa*” izan litekeenaren ingurunea bere lanaren ardatzetako bat izango da, kontuan izanik ikasketa orok esan nahi duela testuinguru sozial, politiko eta ideologiko batean ikasten dutenen indukzioa.

Ideal lokalak hainbat testuinguru sozialetan adierazten dira, eta hezkuntza praktikei hainbat esanahi ezartzen dizkie. Horri dagokionez, Hamiltonentzat “*ikaskuntza gizarteak*” berak inplikatzeko duenaren zentzuak, kontzeptu global bezala eta nazioarteko erakundeek edo Europar Komunitateak bere gain hartuta, alde

batera uzten du zabalagoak izango liratekeen “*irakaskuntzaren gizartea*”ren edo “*gizarte hezigarria*”ren eraketa. Horrek zer esan nahi du, *XVI. mendean ezarri zen eta besteen artean Jesuitek babestu zuten eskolatzere ereduak bukatu egiten dela?*

Hamiltonentzat “*ikasketaren*” hizkuntza berriak erakargarritasun lokala eduki dezake. Sentimendua demokratikoa den heinean, planteamendu horiek hezkuntzaren birbaieztapen bezala eta eskolatzearn nahi ez diren alderdien errefusatzeko bezala adieraz daitezke. Dena dela, “*ikasketaren*” balioari etengabeko erreferentzia egiteak ahalegin globalak mozorro ditzake, eta horrela, “*eskolatzeara: doktrinatzeara*” eredu zaharrak “*komunikazioaren eta informazioaren teknologia*” eredu berriekin berdefini daitezke. Horrekin, *lehen “irakaslearen” eta eskolako “dotrinaren” azpian zeuden botere harremanek* hezkuntza softwarea sorraraz dezakete eredu justifikatuekin, horrela, softwarearen ingeniariak izan daitezkeen heziketa elementuen bultzatzaileak eta zaintzaileak, “*curriculum ezkutuak*” gordeko lukeen guztiarenak, alegia. Horrek *promoziorako merkaturia eta “dotrina” digitalen salmentaren* antzeko “*ikasketa gizartea*” ekarriko luke, eta horrek ezin du benetan hezitzailea izan. Horrekin, aldaketa soziala desklasifikatu eta ahuldu egingo litzateke. Bien bitartean, heziketa praktikek eta hezkuntza ikerketek aldaketa horiek ezagutzera eman beharko lituzkete eta horietara prestatu beharko gintuzkete kanpoko legeetara moldatu beharrik izan ez dezagun, baizik eta denboran eta espazioan denok aukera berdina izango ditugun kontestuan egituratzea eta berreraikitzea egokituko zaien praktiketara.

## Bibliografia

### D. Hamiltonen lanak:

- *Independent Learning materials and Science Teaching in Schools* (1974)
- *Curriculum Evaluation* (1976), gaztelaniara itzulia eta errefrentzia oso aipatua.
- *In Search of Structure: Essays from an open Plan School* (1977)
- *Beyond the numbers game: A reader in Educational Evaluation* (1977)
- *Understanding classroom life* (1978)
- *Rethinking educational Research* (1980)
- *The Meritocratic intellect: Studies in the History of Educational Research* (1980)
- *Towards a Theory of Schooling* (1989), askotan aipatua eta hainbat hizkuntzataraz itzulia, horien artean gaztelaniara eta japonierara.
- *Learning about education: Unfinished curriculum* (1990), askotan aipatua eta hainbat hizkuntzataraz itzulia, horien artean gaztelaniara.
- *Curriculum History* (1990), hau ere oso aipatua eta hainbat hizkuntzataraz itzulia.
- *Steering the future: Rationality and Efficiency in policy-related educational research and development* (1992)

Testu horiekin batera ehundaka artikulua idatzi ditu aldizkari zientifiko garrantzitsuetan hainbat hizkuntzatan. Bere lanak berderatzi hizkuntzataraz itzuli dira eta mundu guztian gonbidatzen duten hizlaria da. Gaur egun informazioaren teknologiarekin eta hezkuntzaren etorkizunarekin erlazionatutako Europako eta Ipar Ameriketako hainbat proiektutan parte hartzen du.



# Ostadarren hotsaz

ASCHERO musika sistema.  
Euskal abestiak, abesti eza-  
gunak... sistema horretan  
aurkeztuak.

*Egilea: Jose Ramon Vitoria*



hh  
hik hasi